KONTZIENTZI ERAGOZPENA

TXOSTEN INFORMATIBOA

CJE
LGK
TUNADIKO GAZTEBAREN KONTSEILUA
CONSEJO DE LA JUVENTUD DE LA RIOJA
Consejo de Juventud de Navarra
Nafarroako Gazte Kontseilua

AURKIBIDEA

Aurkezpena	3
Kontzientzia Eragozpenaren Historia	4
Euskal Herriko Gazte Kontseiularen Deklarazioa	8
EGKren Kontzientzia Eragozpenari buruzko Lan Batzordea	9
Kontzientzia Eragozpenari buruzko legislazioa	10
Kontzientzia Eragozpenaren Praxia	12
Instantziak	21
Kontzientzia Eragozpena zenbakietan	27
Iparra - Hegoa	38
Industria militarra	42
Emakumea eta Antimilitarismoa	49
Fiskal Eragozpena	52
Pakeari buruzko bibliografia	56
Zerbitzu Militarra lege berriari buruz	58
Kontzientzia Eragozpenaren Helbideak	59

PAPER BIRZIKLATUA PAPEL RECICLADO 100%

AURKEZPENA

Euskal Herriko Gazte Kontseilauk, kontizentzi eragozpenari buruzko kanpaina jarraituz, euskal gaztediak dituen kezka guztiak argitzeko material berri hau argitaratzen du.

Azken urte hauetako gertakizunen aurrean (intsumisioa, eragozle korpuruaren igoera, Ordeko Zerbitzu Zibila (O.O.Z.) martxan jartzeko saioak, Golkoko guda, e.a.,...) dossier honek honbeto erreflexionatzeko eta Zerbitzu Militarraren (Z.M.) aurrean zer nolako erabakia hartu lagun diezazun espero dugu.

KONTZIENTZI ERAGOZPENAREN HISTORIA

Kontzientzi Eragozpena (K.E.) kontzeptuari hurbiltzen.

K.E.ri buruz hitzegiten denean ohitura da soldaduzkara laburtzea, baina garbi eduki behar da fenomeno hau askoz ere zabalagoa dela.

K.E.a gizakiari lotuta doa honek ipinitako legeekin, zeren eta ikusmen zabal batetan ulertu daiteke, pertsona baten balio, sinismen edo etsipenetan eragin duen lege, arau edo egoera baten oposaketa bezala. Era zuzen batean askatasun ideolojikoan eta kontzientzian jatorri duan eskubide funtsezkoa da, Gizakien Eskubideen Azalpen Unibertsalan agertzen dena.

Gure ikuspegitik K.E.a militarismoaren aurkako kritika bat da, militarismo bezala ulertuz nagusita dagoen praktika politiko-ekonomiko bat, baztertu behar diren fenomeno ugarien oinarri, indarkeria, zorigaitza, matxismoa, explotazioan oinarritutako erlazio estrukturalak, etbr. K.E.a gainera, militarizazioaren aurkako praktika bat da, gure soziedadea aldakuntzara eramateko joera duena, zentzu honetan Pakea eta Juztiziarekiko konpromezu serio batek ez du suposatzen ejerzito eta harmamentuen deuseztearen nahia bakarrik, baita ordea, jarrera sozial eta politiko bat, adin eta sexu independentzia duena, sistema salatzeko eta soziedade desberdin baten aukera bezala.

Historio lab urra.

Nahiz eta mugimendu sozialak beraien estratejiak aldatzen joan eta ideiak beste batzuetan bilakatzen, K.E.ren oinarria lehen zibilizazioetan ere agertzen da. Historiak azaltzen dizkigu, beraien printzipioen aurka zihoazten legeen kontra altxa ziren pertsonen makina bat kasu, «desobedentzi zibilan» eroriz.

Thoureau izan zen termino horren aita, nahiago izan zuen kartzelaratua izatea hau salatzen bait zuen Mexico-ko gerla eta esklabutzaren mantenimenduarekin. Thoureau-ren ideiak pertsona eta mugimendu askoek bereganatu zituzten: «cuaquero»-ak, Gandhik, Tolstoi-k, Luther King-ek, etbr.

K.E. terminoa lehen aldiz Hegoafrikan erabili zen, Gandhi-k eragin zuen «desobedentzi zibil» mugimendu batean, beltzek behartuta erabili bahar zuten pasaporte berezi baten aurka. Modu honetan, beraien nahia ez zen, zuzena iruditzen ez zitzaien lege bat desobeditzea bakarrik, baita aplikaezina egin

araztea beraien desodedentzi harekin, lege hura sortu zuen sistema errazista kolokan jarriz.

Guk azaltzen dugun kontextuan, K.E.ren ibilera bi gerla mundialak utzi zuten suntsiketa eta hilketa ondoren hasten da. Horrela, bi gerla hoien tartean sortzen da «Gerlateen aurkako Erresistenteen Internazionala», gerlateen sustrai eta sorburuen aurka doan lehen erakundea. Geroago agertzen joango dira lehen objetore eta objetore mugimenduak, hoiek militarismoaren aurkako ondorio bezal soldaduzkari uko egingo diote, edo eta objezio fiskalaren kasuan, Defentsa Ministerioari doazten zerga kopurua ordaintzeari uko egingo diote edukin soziala duten proiektu alternatiboetara zuzenduz.

Espainar Estatuan erraza da edukin antimilitarista duten egoera historikoak aurkitzea. Bi adibide garbi daude:

A. Mende hontako lehen herenaren langile iskanbilak antimilitarismo indartsu batek bustitzen ditu. Presio handia dago soldaduzkaren deuseztearen alde. Adibide bezala balio dezake 1909. urkeko Bartzelonako Aste Santuko greba orokorrak, Marruecos-eko gerla kolonial eta erreserbisten mobilizazioaren aurka.

B. Kataluña Autonomiko Estatuko Proiektuan (Nuria 1931. urtea), Bigarren Errepublikan, zera baiezten da: «Ezin da hiritar inor behartu soldaduzka egitera».

Kontzientzi Eragozpen lehen kasuak Jehová-ko Testiguak izango dira 1958. urtean, hala ere beraien K.E.ak ez zeukan edukin politikorik.

Hirurogeigarren hamarkadaren bukaeran, ikasle gazte batzuk eztabaidaka ari dira K.E.az, soziedadearen militarizazioaren aurkako indarkerigabeko erantzuna bezala; geroago, kanpaña bat hasten dute Ejerzito Ministeritzari eskutitzak bidaliz K.E.a onartzea eskatuz, eta kontextu hontan zerbitzu zibil baten aukerarekin. Urte gutxi batzuk geroago lehen objetoreak sortzen dira (Pepe Beunza, 1971. urtea). Lehen objetore hauen guda, jeneralean kartzelaratuak, ordezko zerbituzu zibil baten eskaerarekin zehazten da.

Une hortan, oraindik K.E.ak duen erantzun eskasa dela eta, soziedadeari tesi antimilitaristak adierazteko beharra izan zen arrazoia, zerbitzu zibila aurrerakada bat bezala kontuan hartzeko.

K.E.a legepean ipintzeko asmo batzuk daude, baina proiektu eskasak dira arrazoi erlijiosoetara edo armagabeko soldaduzkara mugatzen dutelako, gainera militarren presioa oso handia da, horrela dela eta, denak hutsegiten dute.

Adibide bezala eta lehen objetore hauen guden puntu garrantzitsuena bezala, adierazi behar da Hospitalet-eko Can Serra auzoko proiektua izan zena 1978.urtean, bertan bost gazteek zerbitzu zibil bat antolatuko dute beraiek

zuzendutakoa. Beraien atxiloketa protesta internazionala ere ekarriko du eta 1976. urteko Uztailaren 30ko barkamenarekin askatzen dituztenean beste objetore talde batek haiek utzitako lanarekin ekiten du. Horrela, Estatu guztiko beste gazte taldeek desobedentzi adibide berdina jarraitzen dute, beraiek zuzendutako zerbitzu zibilak antolatuz. Protesta berezi hauek eta atxiloketa ugariak direla eta, objetore bihurtzeko nahia duten gazteen kopurua biderkatzen da.

1976. urteko Abenduan lehen gobernu «demokratikoak» Lege Dekretu bat erregulatzen du K.E.a onartuz baina asmo erlijiosoetara mugatuz. Objetoreek inola ere, ez dute onartuko lege hau. Erantzun eta gudu oinarri bezala «Kontzientzi Eragozpen Mugimendua» (K.E.M.) sortzen da 1977.urtean, helburu hauek dituelarik: legearen kontrako boikota zuzendu, martxan ipini atxilotuta dauden objetoreak askatzeko kanpaña, lotura internazionalak aurkitu eta zabaldu, eta talde desberdinen artean gai teorikoak elkartrukatu.

Boikotak arrkasta lortzen du eta militarrek objetoreen soldaduzka atzeratzen dute K.E.a erregulatzen duen lege bat sortu arte, horrela eta, atxilotuak askatzen dituzte.

K.E.M.ak bere eztabaida ideolojikoa eta bere praktika sakontzeko beharra ikusten du, militarismoaren aurkako kritika batean eta indargabeko estratejian oinarritzen den gudu antimilitarista batean.

1978.urteko konstituzioak K.E.ren eskubidea onartzen du eta jakinarazten du K.E. eta Ordezko Zerbitzu Zibilaren (O.Z.Z.)lege berria. Hau sei urte pasa arte ez da onartuko, 1984.urteko Abenduaren 28an, Kontzientzi Eragozpen Legea da (K.E.L. 48/1984).

Ia objetore guztiak baztertuko dute eta oso gogor kritikatua izango da erakunde desberdinetatik (Gazte Kontseilua, Eusko Parlamentua, Kataluniar Parlamentua, hiritar erakundeak, etbr.). Herriko Defentsoreak 1985. urteko Otsailaren 28an, K.E.M. eta beste erakunde eta partidu ordezkatuz, Hauzitegi Konstituzionalan errekurtso bat presentatuko du, baina 1987. urteko Urriaren 27an lortuko den erantzuna ezezkoa da, lege hura azkenik onartuz.

Gobernuak K.E. Legea kaleratzen duenean, K.E.M.ak desobedentzi kanpaña bat aurrera eramateko asmoa azaltzen du K.E.L.a deuseztatzeko, hortarako, Eragozpen Kolektiboa deiturikoa erabiliko du. Ezezkoa Kontzientzi Eragozpenaren edozein legearentzat izango da, modu honetan K.E.tik egiten den kritika antimilitarista osatu nahi delako. Eragozpen Kolektiboak, kontzientzi arrazoiak emateari eta O.Z.Z. betetzeari uko egiten dio. 1988.urteko otsailarte Kontzientzi Eragozpen Kontseilu Nazionalak (K.E.K.N.) (K.E.L.ak sortutako erakundea kontzientzi asmoak hauzi egiteko), bere funtzioekin kontraesanetan, 9368 objetore onartuak zituen, baina une hontatik aurrera eskakizunak ezeztatzen eta arrazoien zabalketa eskatzen hasiko da. Desobedentzi zibil estateji honek 1989. urteko Urtarrilean insumisioa erakarriko du: onartugabeko objetoreak uko egiten diote

soldaduzka betetzeari (milira insumisioa) edo O.Z.Z. betetzeari (O.Z.Z.ri insumisioa) publikoki azalduz.

Bitartean, Euskadiko Kontzientzi Eragozpen Alkarteak (E.K.E.A.) lege egoera progresista bat aurkitzeko nahia adierazten du une hontan dagoen errejimen legala zalatuz. Hortarako, ekintza guztiak lege egoera bat lortzeko zuzenduta daude desobedentzi zibil kanpaña bat hasiz. 1990. urteko Urtarrilaren 12an Goreneko Hauzitegiak Kataluñako Kontzientzi Eragozpen Alkarteak presentatutako errekurtso bat onartzen du, baliogabe utziz O.Z.Z. onartzen zuen legea. Juztizia Ministeritzak ordea, aldaketarik gabe mantentzen ditu arauak. Horrela, Goreneko Hauzitegiak ezeztatzen du ere lehen onartutako errekurtsoa, beraz lehengo arau sortak bere balioa gordetzen dute oraindik.

Beste aldetik, O.Z.Z.a 1989. urteko erdialdean funtzionatzen hasi zen, onartutako objetoreak deitzen hasi zirenean. Kontzientzi Eragozpen elkarte gehienek orduan O.Z.Z. horren aurka joateko asmoa adierazi zuten, insumiso bezela deklaratuz. Urte horretan eta 1990.ko hasiera arte onartutako objetore talde txiki bat bakarrik deitua izan da O.Z.Z. betetzera (OPSOC-en datoak direla eta, 1990. urteko Otsailan 477 ziren O.Z.Z. betetzen ari zirenak Estatu guztian).

Gaur egun 2000tik gora da desobedentzi kopuruaren maila. Gobernuak errepresio selektibo bat darama insumisoen gain, adibide eman nahian, zailtasun handiak dituelako objetoreak daukaten euskarri sozialagatik.

EGK-CJEren DEKLARAZIOA K. E. LEGEAREN O.Z.Z. AURREAN

1- Kontutan hartuz 48 legea/1984, Abenduaren 26koa, KE eta OZZren Erregulatzailea, bere agerpenetik KE Eskubidearen erregulazio murrizkor bat bezala eta eragozleentzat sektore sozial guztien izate errepresentagarrien espektro zabal batetik diskriminatorioa, Eusko Legebiltzarratik (1985ko martxoan onartutako ez legearen proposamenduan), Euskal Elizbarrutiak arte (1984ko uztailaren Agiria), Giza Eskubideen Elkargotik pasatuz, Amnesty International eta eragozle talde berak kontsideratua izan zen.

2- KEk militarizazioaren aldeko laguntzari uko egitea era erantzunle batean, pertsona guztiaren eskubide bat eratzen du, eta ez ZMren esklusioaren aparteko motibo bat kontsideratuz.

3- Kontutan izanik 48/84 Legearen aplikazioak eragozle batzuk gartzelara eraman duela, Amnesty Internationalagatik lehenego kontzientzi presoak bezala onartuak izan dira Estatu Espainarrean Diktaduraren amaieratik, Lege hori bere KE eskubidea bortxatzen zuela ulertzeagatik.

4- Heundaka euskal gazteak eragozle direla gogoratuz, beraien adierazpenak 48/84 Legearen erabaki zigortzaile onartzearen aurkako aurkezten dira.

5- Joan den ostiralean, Urriaren 30, argitaratutako Auzitegi Konstituzionalaren sententzia ostean, 48/84 Legea ez duela aldaketarik jasotzen konztatatuz.

6- Kontutan hartuz Gazte Kontseilua entitate bezala har daitekela, non eragozleek zerbitzu militarra edo ordezko zerbitzu zibila egin dezakete:

ALDARRIKATZEN DU

Kontseilu hontatik Auzitegi Konstituzionalaren epaia eta Legeari egindako kritikarekin bat eginik, KEren Lege Erregulatzailearekin lan ez egitea erabaki du, entitate ordezkatzaile bat izatera uko eginik. Honetaz gain, OZZ egitera ukatzen diren kontzientzi eragozleekin bere elkartasuna berritzen du, bere III. Batzarrean gehiengo absolutuagatik.

Euskadiko Gazte Kontseiluaren K.E.ri buruzko Lan Batzordea

Euskadiko Gazte Kontseiluaren KEri buruzko Lan Batzordea honako helburuarekin eratzen da: « KEak zer den eta zer esan nahi duen ezagutzera eman, horrela, euskal gazteek eskubide hau erabili dezaten. KE Pake eta Juztiziaren lorpenerako tresna baliogarri bat dela ulertzen dugu».

Uste dugu beharrezkoa dela Kontseiluak zerbitzu militarraren inposaketa legalagatik ukitutako gazteen aurrean erantzun dezala.

Hau zertan oinarritzen da:

Pakearen aldeko lanak EGKren lehentasunen artean egon behar du.

KEren lana soldaduzkaren aurkako borroka batean ez da mugatu behar, baizik eta transformazio sozialaren nahi eta gako batetik esparru globalago batean kokatu behar da; horrela, EGKak Pakearen burutzapena posible egiten doazen arlo eta errealitateak ikutu eta lan egin behar ditu: ekologia, pakerako heziketa, giza eskubideak, lanpostuak, elkarkuntza... sozial eta giza erlazio desberdin batzuk posible izan behar direla etsipenetik.

Gizarte zibilaren erantzunkizuna indartu

Pake eta Juztiziaren aldeko benetazko lan batek zera suposatzen du, ez bakarrik baldintza material horien desagertarazteagatik borroka egitea, baizik eta dinamika hori, maila guztietan posible egin duten baloreek, pertsonal eta kolektiboek, erradikatzea beharrezkoa da. Horregatik beraien eta Estatuaren aurrean, pertsonen kontzientzi soziala eta erantzunkizuna bultzatu eta indartzea nahitaezkoa dela ulertzen dugu.

Pakea posiblea da bakarrik gure erantzunkizuna agente sozialak bezela jaso dezakegunean eta Pake helburua pakearen aldeko aukeretan zehazten da orduan guda eta zapalketaren mekanismo guztien aurka azalduz.

LEGISLAZIOA

NAZIONALA

* Abenduaren 26ko 48/1984 Legea, K.E. eta OZZ arautzen dituena (BOE 311 Zª , 1984ko abenduak 28).

* Abenduaren 26ko 8/1984 Lege Organikoa, K.E. adieraziz ,gero baliabideak eta zigortze-bideak arautzen dituena
(BOE 311 Zª , 1984ko abenduak 28).

* Kontzientzi Eragozpenerako Kontseilu Nazionalaren Araudia eta kontzientzi eragozleentzat jotzeko prozedura arautzen dituena
(BOE 101 Zª, 1985eko apirilak 27).

* Urtarrilaren 15eko 29/1988 Erret-Dekretua, kontzientzi eragozleen ordezko zerbitzu zibilaren araudia arautzen duena.
(BOE 18 Zª, 1988ko urtarrilak 21).

* 1988ko martxoaren 15eko Agindu Ministrala, OZZak garatuko dituen sektoreak arautzen duena.

* 1988ko irailaren 30eko Agindu Ministrala, OPSOCek izate laguntzaileekin egindako kontzertuetan aplikatuko diren modulo ekonomikoak arautzen dituena (BOE 240 Zª, 1988ko urriak 6).

*1989ko otsailaren 25eko Agindu Ministrala, kontzientzi eragozleen OZZk izate laguntzaileekin egindako kontzertuetan aplikatuko diren modulo ekonomikoak arautzen dituena.
(BOE 49 Zº , 1989ko otsailak 27).

* 1989ko otsailaren 23ko Agindu Ministrala, OZZren laguntzaile sozialen - kontzientzi ergozle bezala- garraio eta jantzi gastuen zenbatekoa arautzen duena (BOE 49 Zº, 1989ko otsailak 27).

* 1989ko abenduaren 21eko Agindu Ministrala, kontzientzi eragozleen erreserba pasea arautzen duena (BOE 309 Zª, 1989ko abenduak 26).

* 1989ko abenduaren 29ko Agindu Ministrala, kontzientzi eragozleen osasun laguntza arautzen duena (BOE 313 Zª, 1989ko abenduak 30).

RD 266/1995 de 16 MARZO REGLAMENTO PSS
LEY 6/1996 de 17 ENERO LEY DEL VOLUNTARIADO
* 15.2 //16 DISP ADICIONA 3ª

NAZIOARTEKOA

* 1950ko azaroaren 4ko Giza Eskubideen Babeserako Europear Hitzarmenaren 9. artikulua (BOE 1989ko urriak 10).

* Europear Kontseiluaren kontsultarako batzarraren 337 erabakia (1967), kontzientzi eragozpenari buruz.

* Europear Kontseiluaren Legebiltzarraren 816 gomendioa (1977).

* 1983ko otsailaren 7ko Europear Legbiltzarraren erabakia.

* 1989ko urriaren 13ko Europear Legebiltzarraren K.Eren buruzko erabakia.

KONTZIENTZI ERAGOZPENAREN PRAXIA

▶K.E.ren LEGEAN OINARRITUTAKO ERAGOZPENA

▶Legalki ezartzen da:

■ Militar beharrei lotuta dagoen pertsona guztia eta «orden erligioso, etiko, gizaldeko, filosofiko edota beste edozein natura berberaren» arrazoiengatik (1-2 KE Legearen Art.) ZMrekin ados ez badator, eragozletzat deklaratua izan daiteke.

■ Eragozpen eskubidea egin daiteke soldaduzka egin baino lehenago edota ondoren, baina inoiz ere ez soldaduzka egin bitartean (Art. 3-1 KEren Legea). Legeak ez du uzten soldaduzka egiten den bitartean eragoztea eta halako jarrera (desertore militarrentzat) militar aldetik jarraitua da. Hala ere, badago koartela uzten duen pertsonik, funtsezko usten dugun eskubide bat erabiliz; ezinbestekoa da, orduan, KEaren talde batekin koordinatzea (direktorioa ikusi).

■ Eskariak 17 urte betetzen diren urtearen azkenengo trimestretik soldaduzkara joatearen eguna baino 2 hilabete lehenago arte aurkeztu daiteke. Komenigarria da soldaduzkara joan behar duzun baino 2 hilabete lehenago objeta dezazula, bestela zure soldaduzkara joatearen agindua ez da ezeztaturik geratzen.

▶Jarraitu behar diren pausoak

KEKNera (Kontzientzi Eragozpen Kontseilu Nazionala) zuzendutako inpresoa betetzen da:

▶Oharrak:

■ Centro Provincial de Reclutamiento jartzen duen lekuan, bere zenbakia jartzen duzu: 20-Gipuzkoa; 48-Bizkaia; 01-Araba; 31-Nafarroa.

■ Gaurko egoera jartzen duen lekuan, ea sorteatu zauden aipatzen da, ZMren erreserban, alistatuta, atzerapenengatik bazterketa tenporala, gaixotasunagatik ZMrrerako baliagarria, gaixotasunagatik bazterketa osoa

■ KEKNera bidaltzen duzu:

■ KEKNen bertan pertsonalki aurkeztu daiteke:

CNOC
Serrano/k, 19 - 5. planta.
28001 Madrid.

■ Korreoseko ofizinetan, eskutitz irekian gutun zertifikatua bezala (ez gomendatua).

■ Errepresentazio diplomatiko eta kontsulatuetan atzerrian bizi ez gero.

■ Gobernu Zibilaren bitartez: betetako inpresoaren 3 kopiak egiten dituzu (hobeto originalak badira) eta Gobernu Zibilean zigilatzeko eskatzen duzu.Zigilatutako originala han gelditzen da (ZMren 132.3 Legea: C.P.R.ra eramateko beharra), beste kopiekin Centro Provincial de Reclutamientora joan behar duzu, zozketatuta baldin bazaude soilik, eta hau kopia batekin geldituko dira. Beste kopia bat eragozpen talde hurbilenera edota gehien identifikatzen zaren taldeari eman diezaiokezu zure egoeran dauden beste batzurekin koordinatzeko. Azken kopia zuretzat da.

Bide hoberena, Gobernu Zibilaren bitartez da, dena den NAN eta militar egoera fotokopiatuak eta konpultsatuak (han bertan egiten dizkizute) eraman behar dituzu. Oso garrantzitsua da zuk behintzat kopia batekin gelditzea.

▶Eragozlearen onarpena.

Eskariaren aurkezpenak soldaduzkara sartzea esikitzen du, aurrez aldetiko bi hilabeteekin egiten den kasuan, eta 6 hilabetetan KEKNak, bere onarpena edo gaitzezpena eragozle bezala, interesatuari komunikatu behar dio. 6 hilabeteko epean komunikaziorik jasotzen ez bada, eskaria onartua bezala ulertuko da deitutako «isilune administratibo positiboagatik». Praktikan KEKNak epe hori pasa ondoren ukatzera ailegatu dezake. Batzutan, zure eskaria egokia ez bada motiboen gehitzea edota eragozle bezala onartzeko arrazoi gehiago eskatzen

dizkizute. Zure eskaria ukatzen badute eta intsumiso bezala deklaratu nahi ez baduzu ez eta soldaduzkara joan ere, KEKNera deitu eta galdetu ea zer den haiek nahi dutena edota planteatu zure arazoa KEri buruzko informazio zerbitzu batean edo eragozle taldeetan zer egin behar duzun jakiteko. Errezena beste eskari bat bidaltzea da. Abokatu eta errekurtsoekin sartzea ez du penarik merezi, garestiago ateratzen bait da eta ez da hain zihurra.

▶Salbuespen, luzamendu eta bazterketak.

Salbuespen, luzamendu eta bazterketaren zergatiak ZM eta OZZrentzat berdinak dira.

■ Bazterketak.

■ Osoko edo denborako gaixotasun edota, psikiko edo fisiko gaitasun ezagatik.

■ Tenporala, askatasun gabetasunaren kondena betetzeagatik.

■ Salbuezpenak

■ Nazioarteko hitzarmenagatik.

■ Beste herrialde batean ZM edota zerbitzu zibila salbu edo egina izateagatik.

■ Luzamenduak

■ lehen erakoak:

• Eskaera egin dutenek, familiaren mantenurako parte hartzen dutelako. Instantzia mota lehen erako luzamendu eskaria da. Luzamenduaren iraupena 3 urtekoa da, eta hauek pasa ondoren baldintzak mantentzen badira, eragozlea baztertua geratzen da.

• Eragozlearen presentzia lanpostu batean bere lortze eta finkapenerako ezinbestekoa da.

Instantzia mota lehengoa bezala da, luzamenduaren iraupena 2 urtekoa da eta ez da berritzen.

■ Bigarren erakoak:

• Ikasketa ofizialak.

• Oposizio ofizialen prestaketa.

•Ofizialki eskatutako praktikak lanpostu edo tituloak lortzeko.

Luzapenaren prorroga 2 urtekoa da, azkena salbu, 25 urteetara ematen dena, eta urte bat irauten duena.

■ Hirugarren erakoak:

ZMan edo OZZean anai bat izateagatik.

Anaiak ZM edo OZZ egiten ari dela kreditatzen duen dokumentazioak. Iraupena urte batekoa da eta ezin da berritu.

■ Laugarren erakoak:

Atzerrian bizitzeagatik.

Kontsular bulegotik edo bere faltan errepresentazio diplomatikotik bitartez bideratu behar da. 2 edo 6 urteko iraupena du. 3 aldiz segidan baieztatzen bada (atzerrian bizi direnak) edota guztira 6 urtekoa bada (interes nazionalaren arrazoiak) baztertuta geratzen da.

■ Bostgarren erakoak:

Kargu publiko bat izateagatik.

Iraupena kargua irauten duenakoa da.

Salpuespen eta bazterketak eskatzeko instantzi mota - luzamenduena normalena da - Lehen erako luzamendurako salbu, salbuespena, bazterketa edo luzamendua eskatzen den egoera hori kreditatu dezan mota guztietako zertifikatuetaz eman behar da, hau da, NAN eta egoera militarra; ZMerako baliagarria baldin bada ezin da luzamendurik eskatu. Gobernu Zibilaren bitartez, korreo zertifikatu administrtiboa bitartez (ez gomendatua) edota OPSOCera joaten tramitatu behar da.

■ Luzamenduak eskatzeko epea

Kontzientzi eragozle bezala onartzearen notifikazioari jaso eta 2 hilabete horien barruan eta OPSOCaren eskutitza jaso ondoren eskatzen da luzamendua.

Zergati «sobrebenitua» ematen denean eskariak erabilgarritasun epearen edozein unean egin lezake.

17-18 urtekoentzat luzapenaren eskaria 19 urte betetzen duten urte bereko urtarrilaren 1a eta otsailaren 28aren bitartean egin behar da.

▶O.Z.Z.ri deia.

Bi hilabete pasa ondoren OZZ egiteko erabilgarritasunaren urtean sartzen zara, itxarote urte bat da (Iuzamenduak badituzu ez), eta urte hau pasa ondoren izate ordezkatzailera joateko deituko zaituzte, horretarako Estatuan dauden postu guztiekin lan boltsa bat bidaltzen dizutela; sartzearen errenplazoarekin 3 postu aukeratzen dituzu nahiz eta OPSOCek izan noiz eta non sartuko zaren erabakitzen duena, postu bakoitzarako jende zenbakiaren arabera (Lan boltsa jasotzerakoan destinorik aukeratzen ez baduzu, OPSOCek postu erabilgarriak eta zerbitzu beharrak kontutan hartuz, zugatik aukeratuko du). Bere burua intsumiso edo managaitzat aldarrikatzera garbi dutenek bere probintziako destinoak aukeratzen dute, managaitz eta taldearentzat erosoago izatez gainera, OZZ normaltasunarekin martxan jarri dadin galerazteko eta entitate laguntzaile aurkako salaketa kanpaina errazteko.

OZZ egitea aukeratzen baduzu, ZM baino 50% edota 100% gehiago iraun dezakela badakizu, eta posible gerta daiteke lanpostu bat bete izatea, eta honenbestez, sindikatukoek kexu azaltzea. Orokorrean, egun egungo lanetan eta bulego lanetan arituko zara.

OZZren aurrean eragozle talde guztiek desobedientziaren alde egiten dute. Bide hau aukeratzen baduzu (Estatuan 16% ren batek ez dute egiten) edozein taldearekin jartzen zara kontaktoan.

OZZak 3 egoera ditu:

* Gertutasuna: Eragozletzat onartua zarenetik, OZZ egitera joaten zaren arte. Iraupena, legalki, urte batekoa da baina praktikan 2 edota urte gehiago izatera heldu daiteke.

* Jarduera: Esan dugun bezala ZM baino 50% edo 100% gehiagokoa da. 28 urte edo gehiago badituzu denbora erdia da.

* Erreserba: 34 urte betetzen dituzun urte bereko urtarrilaren 1a arte dirau.

▶Beste arazo batzuk.

■ Eragozle bezala onartzen ez bazaituzte:

Ezezko erabakien aurka Administrazioaren aurkako errekurtso bat jarri daiteke Auzitegi Gorenean, oinarrizko eskabideen aldeko errekurtsoa hain zuzen, 10 egun dituzu ezezkoa jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Zure eskaria berriro ezeztatzen bada, Auzitegi Gorenaren aurrera jo beharko duzu. Auzitegi

Konstituzionala aurrean anparo errekurtso bat ezartzeko posibilitatea geratzen zaizu. Ezezkoa ematen baduzu edota epe barruan jo ez bazenu, soldaduzka egitera joan beharko duzu edota intsumiso egin. Hau dena 8/1984 Lege Organikaren 1. Artikuluan araututa dago.

■ KEKNak zergatien zehaztea eskatzen badizu:

Zure helburua, onartua izatea bada, zergatiak bidaliko dituzu. Bestela, intsumiso aldarrikatzen zara.

■ Zure bizi pribatua ikertzen dutela konturatzen bazara:

Auzitegi konstituzionalaren arauera konstituzioarekin bat dator, baina zure intimitate eskubidea apurtzen dutela uste baduzu zure kexua KEKNren aurrean azaldu dezakezu eta errekurtso bat aurkeztu intimitate eskubidea bortxatzeagatik.

▶Post-mili eragozpena.

ZM egin baduzu edota baztertuta edo salbu geratzeagatik egin ez baduzu, ZMren erreserba egoeran aurkitzen zara 34 urte bete arte. Egoera hontan zure burua eragozletzat aldarrika dezakezu, OZZren erreserbara pasatuz automatikoki. Horretarako inpreso ofiziala betetzen duzu eta ZMri kontzientzi eragozpen legala egindako pauso berdinak jarraitzen dira.

PRAXIA

▶INTSUMISIOA

Desobedientzia Zibilaren era bat da, KEren Lege bat onartzen ez duena eta horregatik ez du jarraitzen berak dituen pausoak:

- Zergatiak ematea ukatzen da.
- Ez da KEKN onartzen, zure zergatiak epaitzen dituen auzitegi bezala.
- OZZren ukapena.

▶ZMri intsumisioa.

■ «Al Ministerio de Defensa» inpresoa betetzen da, eta 2 kopiak ateratzen dituzu:

■ Originala korreo zertifikatu administratibo bitartez zuzenbide honetara bidaltzen duzu:

Ministerio de Defensa
Paseo de la Castellana 109
28046 Madrid

■ Kopia bat eragozpen talde batera ematen diozu, berarekin koordinatzea garrantzitsua izanik.

■ Kopia bat zuretzat.

▶Oharrak

•Kopiak eta originalak korreosek sigilatua izan behar dute.

•Bidalitako inpresoagatik ez duzu inolako adierazpenik jasoko KEKN edo Defentsatik. Bere garaian ZMera joateko agindua jasoko duzu eta ordurako eragozpen talde batekin kontaktuan egon beharko duzu.

•Intsumisioa egiazkoa egiten da, zozketatua izaterakoan, errenplazo jakin bat izaten duzunean eta soldaduzkara joateko deitzen zaituztenean une horretan uko eginez.

▶OZZri intsumisioa.

Eragozle onartua bazara eta itxoiten denboraldi bat pasa ondoren eta OZZ egitera zoazen lekua aukeratu ostean (oso garrantzitsua da zu bizi zaren lekutik gertu postua aukera dezazun, horrela OZZri intsumisio mailara izandako

koordinazioa jariagoa izan dadin) joatera deitzen zaituzte eta une horretan, entitate ordezkatzailearentzat zuzendutako eskutitz batekin, joatera ukatuko zara. Baita talde batekin koordinatzea ere garrantzitsua da bakarrik ez geratzeko.

Garbi utzi ukapena dela, bestela aurkeztu ez zarela pentsatuko dute eta zigor posiblea jaso ondoren berriro OZZ egitera deitua izango zinateke.

▶Desobedientziaren garapena.

Intsumiso edo managaitzek egiten duten lehengo gauza, OZZ edo soldaduzka noiz eta non hasi behar duten zehazten duten agiriek bueltatzea da (billeteak eta inkorporazio agindua). Bere destinuaren epaileari ematen dizkiote (soldaduzkaren kasuan Epaile militarra eta OZZren kasuan goardia hauzitegia) OZZ edo soldaduzka egitera zure ukapena adierazten duen eskutitz batekin batera. Aldi berean, managaitzari bere erabakia hartzeko lagundu edo/eta animatu duten 4 pertsonek, notario baten aurrean autoinkulpatzen dira hori egiteagatik. Ondoren, aldarrikapen hori epailearengana eramaten da (Hau dena eragozpen taldetik koordinatzen da).

Soldaduzkara joateko garaia ailegatzen denean, intsumisoak ez doaz. Aste batzuk pasa ondoren, errenplazo berdineko intsumiso guztiak beren probintzitako Auzitegi Militarraren aurrean aurkeztuko dira (baldin eta ez bada, Gobernu Militarraren aurrean), publikoki ejerzitoaren parte hartzeari beraien ezezkoak baieztatzeko. OZZri diren intsumiso edo managaitzekin berdin gertatzen da, hauek izate bera edota beste egoitza administratibo batera joanez.

Epaileak zure ezezkoa adierazten duen eskutitzak lehen aipatutako agiriekin jasotzen duen unetik, honek «zerbitzuaren (militarra edo ordezkoa) egiteari ezezkoagatik» kausa bat irekitzen du, eta lehen aldiz deklaratzera deitzen zaitu. Soldaduzkara, intsumisoa bazara auzitegi militar berberara joan beharko duzu, zure probintzian baldin badago behintzat, edo bestela zure helbidetik gertuena dagoen auzitegi penal ordinariora. OZZra intsumiso bazara, zure hiriko auzitegi penal ordinario aurrean deklaratzera deituko zaituzte.

Lehenengo une hontan, epaileak erabaki behar du, ea intsumiso aurretiko presondegian sartzen duen, epaiketa irten arte, edo bestela behin-behineko askatasunean usten duen epaiketa izan arte. Ez dago OZZra intsumisorik behin-behineko preso egotea jaso duenik. Soldaduzka intsumisoei buruz hasieran atxilotzen zituzten baina una honetan fiskal militar berak behin-behineko askatasuna eskatzen ari dira. Behin-behineko askatasunaren egoera hontan, intsumisoak, deituak izaten direnean, beraien jarreran berronestera joaten dira, eta bere kausa nola dagoen jakitera. Azkenean hilabete bakoitzaren bata edo/eta hamabosta sinatzera joaten utziko zaio.

Auzitegien ekintzatik ez duzula alde egingo garbi uzten duzu, hain zuzen ere, legeak ezartzen duen bete beharra, moralki beteko duen eragotzi behar den

norma kuestionatuz. Beste hitz batzuekin, legea «egiten duena» gizartea baldin bada eta desobeditzen duenarentzat zigor bat ezartzen badu, eta horrekin batera, gizartea berak intsumisoei erreprimitzearen aurka egiten badu, legea eta bere norma (ZM eta OZZ) deslegitimaturik geratzen dira argi eta garbi eta ondorioz, abolituak izan beharko dute.

Soldaduzkara intsumisioaren kasuan, Herrialde epaitegi militarra delakoa da, kausa irekitzen duen auzitegia, auzitegi bera batek probintzi batzutan jurisdikzioa du. OZZra desobedientzia kasuan arduratzen dena Instrukziozko Epaitegia da, zibila da eta probintzi bakoitzan batzuk daude. Intsumiso bakoitzari zerbitzua egitera joan behar zuen lekuan, gai den auzitegia dagokio. Auzitegi honen lana «auto de procesamiento» diktatzea da, hau da, delitu bat egin duzunaren ezaugarririk daudela ematen duen epailearen erabaki bat besterik ez da. Beranduago kausaren instrukzio bukatutzat deklaratzen du eta intsumisioa epaituko duen epaileari jokaerak bidaltzen dizkio.Kausa militarrak Herrialde Auzitegi Militarrera pasatzen dira eta zibilak Penalaren Epaitegi batera.

Defentsa politiko bat da, ez dira eginkizunik ukatu nahi zeren eta hasieratik intsumisoak baieztatzen ditu. Eragozle taldearekin koordinazioa funtsezkoa da estrategiaren aspektu guzti hauek erabaki positiboena izan ditzaten.

Gobernu berak dio, Estatu hontan horrelako desobedientzia zibilaren kanpainarik ez dela inoiz ikusi. Intsumisoengandik jasandako errepresioa sinbolikoa izan da. Intsumisoen 94,6% askatasun iraunkor bat gozatu du, presondegirik ezagutu gabe.

KONTZIENTZI ERAGOZPENERAKO
KONTSEILU NAZIONALARI

Nik, ...; ..... urteko adinekoa 1.9 ..... eko .....aren ..... n jaioa; N.A.N. ..... ; .....n bizi, ... kaleko ..... zenbakian .....garren pisua; ..... Erreklutamendu Zentru Probintziala; «.....» delako egoera militarrean honek.

ZERA ADIERAZTEN DUT:

Ditudan ..... arloko uste sendoei jarraiki gerra Gizateriaren bidegabekeria odoltsua dela baiezten dut. Horregaitik ez gerran, ezta bere antolaketan ere, ez dut ezertan lagunduko, gerraren zergatien aurka borrokatzeko erabakia hartua.

Aurreko arrazoiak direla medio, soldaduzka egiteari uko egiten diot eta indar osoz kontzientzi eragozle har nazaten eskatzen dut.

.....n, 1.9.....eko ..... aren .....n.

Sinadura:

AL MINISTERIO DE DEFENSA

Yo ....., con D.N.I. nº.....
domiciliada en .....
localidad de ..... (.....) nacida
en la localidad de .....(.....) el
día .....de ..... del año .....

Ante la incorporación de la mujer en las FAS:

MANIFIESTO QUE:

1. Rechazo esta incorporación puesto que supone una excusa más en el afianzamiento de la imagen del Ejército como institución moderna y «democrática» y de su papel como aparato de control social.
2. Denuncio que es falso el argumento utilizado desde el poder, de que la participación de la mujer en las FAS supondría una conquista en la consecución de la igualdad de derechos con los hombres.
Es más, considero que se traducirá en una situación de doble discrminación:
- como mujer, dentro de una instituciíon creada por y para los hombres.
- como persona, al basarse ésta en la jerarquía y en la obediencia.
3. Soy objetora de conciencia al ejército , ante cualqiuer llamamiento obligatorio, ya sea de carácter civil o militar.
4. Exijo que a todos los efectos, se me considere en mi condición civil y no se me vincule jamás a la institución militar.

....., ... de ..... de 1.9.....

Firmado:

AL MINISTERIO DE DEFENSA

Nombre y apellidos

.....

Dirección

.....

D.N.I. Situación

....

1. Soy persona objetora de conciencia al Servicio Militar, no estando obligada a motivar esta declaración, toda vez que nadie puede ser obligado a declarar sobre su ideología, religión o creencias.
2. Nadie tiene competencia para declarar, reconocer o dar efectividad a mi ejercicio de objeción de conciencia, habida cuenta de que está garantizada la libertad ideológica y religiosa de todos los individuos.
3. Del mismo modo que objeto al ejército, en el ejercicio del derecho fundamental a la libertad ideológica, amplío dicha objeción a mi colaboración con los gastos militares , así como a la realización de la Prestación Social Sustitutoria, incluso en su situación de reserva, que reproduce los mismos esquemas del militarismo.
4. Solicito, a todos los efectos, que se me considere como la persona civil que soy y no se me vincule a las autoridades militares.

En ..... a..... de..... de 199.....

Firmado

.....

INSTANTZIAK

A .....

Yo, ... con DNI número .....
y domicilio en ..... de
..... provincia de .....

MANIFIESTO: que objeto a la Prestación Social Sustitutoria, incluso en su situación de reserva, como forma de desobediencia a la Ley de Objeción de Conciencia que la regula.

1. Porque toda Prestación Social impuesta de forma obligatoria no hace sino reproducir los mismos esquemas militaristas que caracterizan al Servicio Militar, como son la denegación de la libertad y de los derecho individuales de la persona.
2. Porque esta Prestación Social Sustitutoria no es consecuencia de una auténtica conciencia social por parte del Estado, sino de la existencia previa de unos objetores de conciencia que se niegan a realizar el SM.
3. Porque, por ello, con esta Prestación sólo se pretenden cubrir de forma simbólica unas necesidades sociales, mucho más profundas, directamente relacioneadas con una política presupuestaria que prioriza los gastos militares, en constante aumento, sobre los sociales.
4. Porque la Prestación Social Sustitutoria, como sustitutoria que se define del Servicio Militar (SM) , legitima la existencia de éste y, por lo tanto, despoja a la Objeción de Concienica de su verdadero significado de crítica al militarismo, y a la realidad del SM como expresión concreta del mismo.
5. Porque la mayoría de estas prestaciones no hacen sino ocupar puestos de trabajo que podrían, y deberían, ser cubiertos por gente cualificada en situación de paro.

Y DENUNCIO: la expresa colaboración que, con este orden de cosas, lleva a cabo ..... al prestarse a acoger objetores de conciencia en sus planes de trabajo.

En ..... a ..... de ..... de 199...

Firmado:

.....

El abajo firmante, cuyos datos y circunstancias se indican a continuación, al amparo de la Ley 48/1984, de 26 de diciembre, y el Real Decreto 551/1985, de 24 de abril, expone ante el Consejo Nacional de Objeción de Conciencia la presente declaración y solicita el reconocimiento como objetor de conciencia y la consiguiente exención del servicio militar:

EXPTE. Nº: DATOS PERSONALES

PRIMER APELLIDO

SEGUNDO APELLIDO

NOMBRE

DOMICILIO: C/PL. TLNO.

DISTRITO POSTAL POBLACION PROV.

D.N.I. FECHA DE NACIMIENTO

LUGAR DE NACIMIENTO (Población y Provincia)

DATOS MILITARES

CENTRO PROVINCIAL DE RECLUTAMIENTO (Antigua Caja de Reclutas)

SITUACION ACTUAL

FECHA DE INCORPPORACION A FILAS

MOTIVOS DE CONCIENCIA

PRESTACION SOCIAL

OCUPACION LABORAL Y TITULACION ACADEMICA

SECTORES PREFERENTES PARA LA PRESTACION SOCIAL

En ....., a ..... de ..... de 19.....

(firma)

OBSERVACIONES:

- La instancia deberá rellenarse a máquina o con letras mayúsculas.

- Deberá acompañarse fotocopia del DNI o Pasaporte y presentarse en el Registro del Consejo (c/ Serrano, 19, 5a pl. 28001 Madrid) o a través de la Delegación del Gobierno de la Comunidad Autónoma, del Gobierno Civil de su provincia o de cualquiera Oficina de Correos, conforme a lo previsto en el artículo 66 de la Ley de Procedimiento Administrativo.

- Se aconseja presentar, para su mayor rapidez en la tramitación, documento original o fotocopia compulsada de la situación militar expedido por el Centro Provincial de Reclutamiento o Ayuntamiento.

- Los motivos de conciencia señalados en la Ley pueden ser basados en razón de convicción de orden: RELIGIOSO, ETICO, MORAL, HUMANITARIO, FILOSOFICO u otros de la misma naturaleza.

CONSEJO NACIONAL DE OBJECION DE CONCIENCIA.
MINISTERIO DE JUSTICIA. MADRID.

KONTZIENTZIA ERAGOZPENA ZENBAKIETAN

Kontzientzi eragozpenaren aurrean herri honetako gaztediaren jarrera hitzaldi logiko baten bidez azaltzen da, abiapuntutzat «militar» hitzak adjetibatzen duen guztiari ukapen nagusi bat egiten delarik, 1991ean Eusko Jaurlaritzak argitaratutako ikasketa soziologikoan egiaztatu zen bezala. Kontzientzi eragozpenaren onarpen zabal horrekin bat dator eta baita ere intsumiso nahiz kontzientzi eragozleek jasotzen duten sinpatia haundia.

Eta hau horrela da, Euskal Herriko gaztedia nagusiki «antimilitarista» delako, lau gazteetatik hiru ikerketa horrek zioenaren arabera. Jarrera ideologiko hau zera hauetan oinarritzen da: a) edozein ZMren erabateko ukapena, bai gaurko ejerzitoan edota balizko europear ejerzito batean nahiz talde iraultzaile herritarretan; b) emakumeak egitura militarrean parte hartzearen aurkako jarrera bat, sexu arteko berdintasun borrokarekin zer ikusiik ez duena; c) « pakea defenditu ordez arriskuan jartzen duten ejerzitoei ezinikusia «, beharrezkoak ez direnez gero eta desagertzen joan behar dute, bere aurrekontuaren itotze bidez; d) KE, eragozle eta intsumisoen irudi ona aintzindari aktiboak bezala militarismoaren aurka sortu den jarrera.

Definizio ideologiko hau, nagusia izanagatik ere, hurrengo aldagaiak agertzen direnean areagotzen da: a) ideien heldutasuna edo buruzko laborazio handiago baten oportunitatea, informazio alternatiboari eta debate zirkuloei (unibertsitatea, elkargo aktiboa...) sarreraren ondorio bezala; b) sozial estruktura, bere instituzio eta bere berregin mekanismoen kritika handiago bat, helduaren egokiera gertatu ez den bitartean, hartu ez diren senide erantzunkizun eta egitura aldaketa baten posibilitatean sinismen bat bizi da (sozial mugimenduan parte hartu, haustura haundiago bati daramaten jarrera politikoak edo kontzientziz egindako hauteskunde abstentzionismoa, erdi mailak...); c) antimilitarista eritziak dituzten korronteen izatea (komunikabideetara sarrera duten talde antimilitarista aktiboen presentzia, ihardunaldiak,seminarioak, e.a.); d) sentimendu abertzalea edo estatalismoaren ukapena gizartearen superestruktura eratzaile bezala.

Gauzak horrela hartuta, ez da harritzekoa KEa ZMa eranspenari itzuri egiteko era nagusienean bihurtuta izan dadila 5 urteetan bakarrik gutxiengo aukera bat izatetik derrigorrezko ZMri alternatiba batean bihurtzera, are gehiago intsumisioaren agerpenetik eta sozial kontzientzi antimilitarista handiago batetik.

KONTZIENTZI ERAGOZPENAREN GEHIKUNTZA

Zenbaki absolututan, eta 1985 urtearen datuak alde batera utziz eragozleen pilaketaren ondorio izateagatik LOC-ren publikazioaren zain, 1989arte Estatu Espainarrean eragozpenak gora nola egin duen ikusten dugu, urtero 2000 eragozle gehiagorekin, bere exponente hoberenari kasu egiten badiogu, hau da, eskarien zenbakia.1990 zehar, dena den, 27000 eskarien kota gainditzen duen eragozle zenbakiaren harrigarrizko hazkuntza bat ikustea posible izan dugu, 1989an izandakoa bikoiztuz. 1991taz hitz egiten bada, lehenengo progresio geometrikoan egonaldi bat ematen dela dirudi eta hau posible izaten da beste batzuen artean, intsumisoen aurka, errepresio gubernamental handiago bat eman delako, desobedientzi honen ohitzea eta bere berritasuna egin zuen sozial eraginaren galera, eta gero eta handiago diren eragozpen eskubidea ihardunerako gobernuko ofizinek tartekatzen duten ezinak. Edozein kasuan, 100.000 eskarien kota pasa egin da.

Gehikuntza honek hobeto zehaztu eta baloratzeko hitz erlatibotan (%) eraldatu behar dugu, ZMa joan ordez objetatzera erabakitzen diren gazteen zenbakia zatituz soldaduzka edo urteroko errenplazora gehitu behar diren guztien artean, beste herrialdeetan gertatzen den bezalaxe. Grafikan ordezkatutako portzentai hau garbi azaltzen du orain arte konstante eta errepresentagarri izan den ZMri desobedientziaren gehikuntza. Urte arteko gehikuntza netoa 1986, 1989 eta 1990 urteetarako eragozleen zenbakian bultzada adierazgarri bat ikusten uzten gaitu. 1986ko bultzada ulergarria da lehenengo eragozleek (1985) ez bait zuten inolako errepresiorik jaso, bere desobedientziari ezker eta LOCek geldirik aurkitzen zela jasotako kritika olderen ondorioz eta Hauzitegi Konstituzionalaren aurrean rekurtso bat bultzatu zutelako . Baita ere NATOn sarrerari buruzko hauteskunde inguruan garatu zen kanpaina informatibo indartsuarekin zer ikusirik badu. Eragozle talde hori orain dela gutxi amnistiatua izan da (31-12-90ko agiri ofizialean amnistiatuak 21.490 ziren).

Urtea	Objetoreak	Kopurua	%
1982-1985	11.529	1.001.274	1.15
1986	5.986	238.940	2.51
1987	8.396	251.697	3.34
1988	9.985	254.509	3.92
1989	12.624	230.039	5.49
1990	26.528	229.344	11.57
1991(30-6)	13.061	114.672	11.39

1. Irudia. Urteroko objezio portzentaia militar kopuruarekiko.

1986tik 1988 arte moteltasun bat nabaritzen da, zeroruntz doan joerarekin, eragozleen portzentaia 4,5 edo 5% inguruan finkatuz. Joera hau bat batean gorakada bat jasotzen du

1989an (1,57% gehikuntza neto batekin) KEM-MOCetik sortutako «intsumisio kanpaina»ren ondorio bezala, kontzientzi sozial handiagoa eta beste taldeen lana (AOC-EKEA, KAKITZAT). Hau 1990an azeleratzen da (6,08% gehikuntza neto batean kokatzen da) lehengoari batuta eta Golkoko gudan espainako inplikazioaren ondorioz, 1986koaren antzeko karakteristika duen beste bat batzen da, hau da, amnistiatua espektatiba orokor bati, OZZko toki erabilgarriak eta eragozle zenbakien arteko desegokitzearen ondorio bezala.

Ritmo aldaketa hauek, bere oinarrizko esplikazioa, hasieran azaldutako paradigman konpontzen duten aldagaiaren batean aurkitzen dute: eritzi korronteen sorrera. Kontzientzi eragozpen intsumisioz eta giza desobedientziaz gehiago hitz egiten den adinean, polemika zabal bat bideratu du, gazte gehiago bide hau hartuko dutelarik.

Une berean, desobedientzia erradikal egiteak, muga zilegia hareago dexente jartze hori, kolektibo haundi bati tarteko jarreran aukeratzea laguntzen dio, eragozpen «legala», bere esponente garbiena da, orain lehengo radikal izaerarik gabe daudela eta errepresioari elkarturik ez izaterakoan eskuragarriago egiten die. Bestalde, intsumisioak irabazi ez balu, eragozpen «legalak» kontzientziadun eta gazte ausarten esparrua izaten jarraituko luke, hau da, argi eta garbi gutxiengo batena.

Giro sozial egokiago batek eta KEren hedapen lan honek, Estatu Espainarraren autonomi desberdin edota probintzien artean ezberdintasun garbiak ezartzen dituzte. Gazteei KEa ailegatzea lortu edo jakin izan duten talde aktiboak egon diren tokietan eta batera alternatiba hau prejuiziorik gabe uzteko nahiko babes soziala lortu dutenak , marginalizazioaren konnotaziotik, «radikaltasuna» bere adieran peioratibo erabiliagoa eta «zigorra», askatuz, eta ondorioz KEa asko hazi da. Euskal Herria da, europear aitzindari bezala bihurtu dena, bai eragozpenean bai intsumisioan.

Estatu Espainarraren portzentai altuenean izaten beti, 1988 eta 1989garren urte arteko gehikuntza (2,74%) ia bataz besteko estatala (1,57%) bikoiztu zuen 1989tik 1990ra gertatu zen bazalaxe (16,42%a 6,08% aurrean), 30%ren lehen imagina ezina zen kotara iritxiz. 1991an, eragozpena nabariro hazten jarraitzen duen alderdi gutxienetariko bat da, errepresioa - espainiar gobernuak mehatsuen bidez lortu nahi izan duena, aurretiko presondegia intsumiso eta zibil managaitzen kontra, epaiketa batzuen ospakizuna eta kondena gutxi batzuen exekuzioa - halako atari bat gainditzen denean bere eragin disuasorioa sortzen uzten du, nagusia den kontzentzu sozial bati esker. Aukera hain desberdinak diren EAJ, EA, EE, IU, HB, edota EMK-LKIk eragozle, intsumiso eta managaitzek defenditzen dituzte, beraien berezko gakotik ikusita. Halako hazkundea intsumisoen gehikuntzarekin konkominantea da, Euskal Herriko media estatukoa baino 9 edo 10 aldiz gehiagokoa da.

	1989	1990	1991
Euskal Herria	12,06	28,48	43,92
Araba	12,05	31,54	38,37
Bizkaia	12,88	35,55	57,30
Gipuzkoa	12,21	22,90	33,80
Nafarroa	9,45	16,52	27,13
Espainar estatua	5,49	11,57	11,39

2.Irudia. Euskal Herriko objezio datu erlatiboak (%) urteroko militar kopuruarekiko.

	1989	1990	1991
Euskal Herria	1,09	1,94	5,28
Araba	1,15	2,82	8,43
Bizkaia	0,94	1,20	3,74
Gipuzkoa	1,03	2,10	5,65
Nafarroa	1,58	3,32	7,10
Espainar estatua	0,14	0,22	0,52

3.Irudia. Euskal Herriko soldaduzkari intsumisio datu erlatiboak (%) urteroko militar kopuruarekiko.

Intsumisioa militarismoarekin kolaboratzearen ezeztapena da, bere hedapen guztian. Intsumisoak bai ZM bat edota bai OZZ bat egitearen behargarritasunari, kontra egiten dio, horretara prest egongo balitz, ejerzito eta militar lehentasunekin kolaboratzen ari dela uste bait du; ez bakarrik konpartitzen ez duena, baizik eta gainera herrien arteko elkarbizitza pazifikoari mehatxu bat balitz bezala baloratuz eta zer ikusi ez duen bidegabeko alferrik galtze bat gizartearen egiazko beharrekin kontsideratzen delako.

Gazte batek ZM ez betetzea erabakitzen duenean 3 posibilitate ditu: OZZa egin, OZZa egiteari uko egin edota zuzenki ZMri ezezkoa eman. Lehenengoa, nahiz eta soldaduzkara doana baino jarrera aktiboago bat denotatzen duen, ZMri buruz benetazko aldaketarik ez du suposatzen, estatuari zerbitzu baten behargarritasuna jasotzen bait dio, azken batean duen helburua ZMa herri ukapenetik preserbatzea da eta kronskripzioa mantentzea. Beste europear herrialdeen esperientzia horrela ulertutako KEa militarismoak ez du deus estabaidatzen eta defentsa militarrean oso ondo integratua dagoela erakusten digu.

AOC-EKEAk bultzatzen duen zibil desobedientzia demokrazia, pakea eta giza eskubideen aldeko konpromezu kolektibo eta publiko bat da. Eragozleek OZZa ekiteari uko egin dezaten proposatzen bada , gaurko eragozpen legea aplikazioa galerazteko helburu garbiarekin da, eragozlentzat zigor bat bezala sortuta, eta horrela marko legal berri baten laborazioa derrigortuz, eragozpenak funtsezko eskubide bat bezala ezagutu dezan.

ZENBAKIETAN

Horrela planteatzen den desobedientzia zibilaren proposamenak ez du zer hautsi edota zatitu nahi baizik eta bide berri bat eraiki, esklusibista adore guztitik urrun. Beraz, egiteko beste modu bat da, izaera plural eta irekiarekin sortua, arian-arian, errealista eta mailazko estrategia batetik formulatua Pakearen konstrukzioa eta ZMren abolizioruntz gidatzen duen bideak. Legizlazio aurrerakoi eta ez diskriminatzaile baten onartzeak eragozpenaren ateak gazte zenbaki haundi bati irekiko dizkio, horrela ejerzitoaren lana behin eta berriz zalantzan jarriz.

OZZa ekiteari ezezkoa (OZZri intsumisioa eta desobedientzia zibila) eta ZMri ezezko zuzena (soldaduzkari intsumisioa) militarismoa eta/edo konskripzioari ukapenaren edukin berdin bat dute nahiz eta inoren ekintza administratibo batekin ezberdintzen diren, lehengoko kasuan, kontzientzi eragozpenaren estatus legala ezarri duena OZZ baten egin beharra eta soldaduzkaren salbuespena da . Ekintza administratibo honen arbitraltasuna nabaria da adierazpen berdin baten aurkezpenarekin - kolektiboa - 9.368 eskatzaile eragozle bezala legalki ezagutuak izan direnean eta 1988ko otsailetik gaur arte beste 2.664 ukatuak izan dira.

Estatu Espainarrean orohar, OZZa uko egitera benetazko kontingentearen %15aren inguruan mantentzen da, bere hasieratik. Intsumisio eta desobedientzia zibila posible izan dadin, lehenik beharrezkoa da OPSOCek eragozleak OZZrekin betetzeko dei ditzala, soldaduzka intsumisioarekin gertatzen den bezalaxe. Errealitatea, Bulego honek momentu hontan egiteko beharra duten eragozle ezagutuei lekuak hornitzeko dituen oztopo larriak da. Gaurko egoera honako hau da: OZZrako 12.698 postu eta horrei 46.540 eragozle gehitu behar zaizkio ; zerbitzu hau egiteko beharrekin dauden eragozle ezagutuetatik bakarrik % 27,8a postua zihurra dute (Euskal Herrian %7,19) (1989ko amnistiatuak kenduz). Egoera hau 2 gertakizun aurrean txartzen da: bata, errealitatean leku zenbaki honek erakundeekin 4 urteko negoziazio lan fruitua betetzen du eta bestea, bere montante globala 1989an iragartzen zena baino txikiagoa izan zatekeen, 1990an Gurutze Gorriarekin 5000 plazen konbenio bat sinatu ez balitz .

	urte beran kontratatuak	hurrengo urtean onartuak	datorren bi urte-rako proposatuak	GUZTIRA
1989 -12 - 31ko txostena	2.347	4.3	2.000	8.696
1990 -12 - 31ko txostena	6.086	5.691	95	11.872
1991-12 - 31ko txostena	12.506	192	-	12.698

1.Kuadroa. Aktibitate postuak, OPSOCaren arauera.

Leku zenbakien urteroko hazkundea eragozle gehikuntzatik oso atzetik doa, OZZra gehitze deietan gero eta atzerapen handiago bat sortaraziz eta baita amnistia estali bat ere. 1989an ezagutuak izan zirenei, eta ez guztiei, bi urte behar izaten dira (1991 eta 1992) gehitzeko, zeren eta haietako batzuk eta 1988an ezagututako gehien bat beraien beharrezko zerbitzuen ahantzia pozarekin bizi izan dira. Gobernuak dei gutxi egiteak, eskari masibo bati ezker justifikatzen du, 1991ko ekainan bakarrik 5035 eragozle luzapenaren bat bait zuten.

OPSOCaren zailtasuna lekuak kontzertatzeko, LOCek bizi duen desligitimazio sozial indartsutik dator. Hain zuzen ere, ZMren aurka sozial kontzertu handiago bat dauden tokietan non entitateak OZZrekin lan egiten ukatzen dira. Ukapen hau eragozle taldeek kontzientzi eragozpen Legearekin martxa jartzearen aukerarekin egin zuten kanpaina indartsu baten produktua da eta KEren borrokan egiazko onespenetik jarrera solidarioena bezala «ez kolaborazioa» eskatzen zuela. Partean konpontzeko, Gobernua funtsean PSOEgatik gobernatutako erakunde instituzionalak edota partidu horretara kideak diren erakunde ez gubernamentalak ANDE, ONCE edo Gurutze Gorria bezala erabiltzen ari da. Hau da, PSOEk gobernatzen ez duen tokietan erabilgarriak diren leku zenbakiak txikiagoa izatearen arrazoia.

Baina zailtasun hauen adierazpen biziena, 1985tik toki batzuek izanik eta eragozle asko ezartzerako, erabilgarriak diren eragozleen kopuru osotik, bakarrik %5 bat OZZ betetzen ari dira. 1988an, lehenengo hilabetean 1.000 eragozle jartzeko egindako gobernu promesak, urte osoan, 455ei egindako benetazko dei batean gelditu ziren eta ez ziren denak onartuak izan. 1990ean zehar, 27.000 gazte gehiago eragozle bezala aldarrikatzen ziren bitartean, bakarrik 1.167 inkoporazio berri egon ziren ordezko zerbitzu honetan. 1991ko hasieran, Justizia Ministeritzak urtean zehar behar honekin betetzen ari diren eragozle kopurua 11.000 arte gehitzeko asmoa iragarri zuen. Egia da ekainaren hilabetean eragozleen kopuru osoa, OZZ egiten 2.133koa dela, urte erdi lehenago baino 286 gehiago bakarrik. Badirudi, orduan, kopuru osotik inkorporatutako %5a hori gainditzea ezinezkoa dirudi. Gainera bere funtsionamenduan, irregulartasun asko daude, lanpostu baten ordezkoan administratibo edo ordenantza lanera ordezkatzaileen

	Ordezk.	Lekuak
Euskal Herria	2,45	7,19
Araba	1,95	6,91
Bizkaia	1,90	3,50
Gipuzkoa	2,71	9,87
Nafarroa	4,36	16,57
Espainar estaua	4,58	27,28

4.Irudia. Erakunde ordezkatzaileen (lekuak) eta OZZren ezarreraren (ordezk.) laguntza ezaugarriak.

egokiera bezala, ezer ere ez egiten ez duten ordezkatzaileek edo bakarrik erakundearekin bat eginik noiz behinka sinatzera agertzen dira, lehen egindako zerbitzuak OZZren denboragatik konputatzeko zertifikatu faltsuak, e.a. Irregulartasun guzti hauek behartu dute Juztizia Ministeritza hemendik aurrera laguntzaileengan kontrol gogor bat egingo dezala aldarrikatzera. Usai txarra duen hasiera kaskar bat da edo gutxienez zailtasun haundiak aurkezten duen sozialki ez onartutako lege bat betearazteko.

OZZren ukapen orokorra honen esponente onena berari managaitz zibilak edo intsumisoak aldarrikatzen diren eragozleen porzentai altua da. Bakarrik legalki onartutako eragozle bat OZZ egitera deituta denean, bere burua managaitz edo intsumisotzat aldarrikatzeko posibilitatea du eta OZZ egitera joaten ez diren pertsonen zifra absolutu haundiak izaten ez badira, dei gubernamental eskasagatik da, nahiz eta gehiegi argitaratuta egon, eta ordezko hau jasatzen ari den soldaduzkari buruzko homologazioaren prozesuagatik. Dena den, orain arte izandako managaitz zibil eta intsumisoen zenbakia zehaztasuanarekin ezartzea zaila da. Ez managaitz eta intsumisoaren ezetortzea notifikatu behar duen OPSOCak, ez eta Estatuaren Fiskal Generalak, bere prozesamendu judiziala duenak, dagoen ez gehitzearen zenbakitaz ez dute zifrarik ematen.

Euskal Herria	43,85
Araba	53,57
Bizkaia	29,13
Gipuzkoa	51,55
Nafarroa	49,44
Espainar estatua	15,06

5.Irudia. Euskal Herriko OZZri intsumisio OZZ kopuruarekiko datu erlatiboak (%), bere hasieratik (89 -4- 29) 91-6-30 arte.

KEM-MOCren zentsuetan, 1991ko ekainera arte, 378 intsumiso azaltzen dira, OZZren kopuru osotik %15 bat suposatzera datozenak. Baina zenbaki hau gutxien bat bezala kontsideratu behar da. OZZ honetan diren intsumisoak 600nen bat izan daitezkenaren nabaritasunak daude (kopurutik %20ren gainetik), OPSOC berak estraofizialki ezagutzen duen bezala, mugimendu antimilitaristaren bidez koordinaturik ez dauden profugo ugariak kontutan hartzen badira, edo erakunderen batek Bulego honi komunikatu nahi ez izatea eragozlea ez dela inkorporatu. Edozein kasuan, Euskal Herrian deitutako bitik bat OZZra managaitz zibila edo intsumisoa aldarrikatzen da.

OZZri managaitz edo intsumiso eta soldaduzkari intsumisoen zenbakia batzen badiogu, 2.062en kopuru oso bat lortzen dugu, laguntzaileen antzeko zifra (2133), KE Legearen 3 urteren ostean ere. Hemen, managaitz eta intsumisoak diren 973 batzen dira, 178 laguntzaileen aurrean. Intsumisioa euskal eragozleen erantzun normalean bihurtu da eta militar inposaketa edota edozein ejerzito motari ukapen garbi bat eratzen du. Fenomeno honek, Estatu Espainarraren beste herrialdeekin elkartasunean, datu hauen arabera errelebantzi berezi bat hartzen du, KE Legeak ezerezean bihurtu dadila lortzen ari delako eta Europan honelako proporzioetako desobedientzi zibil bat ez delako inoiz ere ez eman izan.

ERAGOZPENA EUROPAN

Herria	1980	1990
Alemania	10,09	26,56
Austria	11,46	11,43
Belgika	3,40	4,36
Dinamarka	3,55	2,41
Espainar estatua	0,22	11,57
Euskal Herria	-	28,48
Finlandia	2,88	2,72
Frantzia	0,43	1,22
Holanda	8,71	7,50
Italia	1,60	2,28
Noruega	11,06	10,87
Suedia	8,97	11,11
Suitza	0,89	1,45

6.Irudia.Europako militar kopuruarekiko objezio portzentaiak.

Hurrengo irudian Europan KEren gaurko egoera ikusi dezakegu orain dela 10 urtekoarekin konparatuz. Orokorrean, KEren zenbakiak ia herrialde guztietan oso finkaturik daude. Belgika, Dinamarka, Italia, Frantzia edo Finlandiak gaur egun ia sinbolikoa, eskasagatik, KE bat izaten jarraitzen dute. Beste batzuk, Holanda, Noruega, Suedia eta Austria bezala, orain dela urte askoetatik %10ren inguruko portzentai finko bat mantentzen dute. Herrialde hauetan, eragozle taldeek KEren orain arteko marko legala onartu dute eta horrekin borrokan ahalmena agortu dute gobernuei fenomenoa kontrolatzeko maniobra zabal bat utziz.

KEa militarismoarentatz desafio bat izan ez dadin Gobernuak kasu bakoitzean erabili dituen mekanismoak desberdinak izan dira: OZZ duin baten posibilitatean ebakina Belgikan bezala edo eragozpen eskarien ukapen sistematikoa zaila egin arte eta horrela mutilei burutik kenduz Noruega eta Italiaren kasuetan bezala. Suiza eta Greziaren aipamen berezi bat egiten

badugu, portzentai baxuekin, KEa legalki ezagututa ez dagoelako eta eragozleak - edo hobeto esanda, intsumisoak - gartzelara doaz herbesteratzen ez badira; bakarrik zenbaki finkotasun horretara 2 salbuespen daude: Alemania eta Estatu Espainarra.

Alemania europear espektroan kasu atipiko bat da. Eragozle zenbakia kontrola dezan auzitegi baten izatearen garrantzia nabaria egin zen 1977an egotzi zutenean, eragozle zenbakiak izugarri gehitu zuen (%8,83tik %14,88 arte urte batean), auzitegia berriro jarrierazi zuela eragozle kupoa kota normaltasunera (%8,00) jetsieraziz.

Esperientzia honen ondoren eta KEak igotzen jarraitzen zuela ikusiz, Gobernuak disidentzia integratzetik erabaki zuen. 1988an alemaniar gobernuak osasun laguntza eta ongigintzan 2.200 miloi marko aurreztu zituen laguntzaileek egiten dituzten lanei ezker. Gobernuari jaiotze murrizteak gehiago keskatzen du gehitu beharko duen gastu sozialagatik, soldaduen eskasiagatik baino. Gaurko laguntza mailak kostu baxu batera mantentzeko emakumeak derrigorrez OZZ (ez ZM) ere egiteko beharra planteatzera eraman dio. Batera, eragozleen erakundeak edozein desobedientzi mota sortarazteko indarrik gabe ikusten dira: ordezkatzaileen sindikatu indartsuena bere afiliatu artean egun bakar baten (1-6-89) greba bat proposatu zuen, militar defentsarengan zuen menpetasun hazkorragatik protestatzeko eta 34.000 eragozle laguntzailetik 3.000 (3,57) bakarrik jarraitu zuten.

Beste salbuespena - Estatu Espainarra - , ikusi dugun bezala, eragozleek planteatzen duten desafioa gobernuaren kontrolpetik ihes egiten duelaren ondorioa da - batez ere intsumisioaren jaiotzetik -. Europear eragozle taldeak urtero biltzen egon dira egoera hau aztertzeko deitutako KEren Nazioarteko Biltzarretan (ICOM) . 1987an, bere azken aldarrikapena hauxe zen:

Europear herrialdeen gaurko egoera KEren kontzepziotaz ikuspuntu antimilitarista batetik erreflexionatzearen beharra ikustarazten digu. KEak indibidualaren esparrua traszenditzen duen desobedientzi zibilaren era bat bezala. Aparatu militar eta bere defentsa kontzeptuan parte ez hartzearen erabaki erantzule eta kolektiboaren bitartez gizartearen militarizazioa eztabaidatzea suposatzen du.

Gaur egun nahiz eta milaka eragozle zerbitzu zibila egiten izan, honek ez duela gure gizarteetan ejerzitoaren paperari buruz benetazko debate bat eragin aurkitzen gara. Kontsideratu behar dugu zerbitzu zibila ze puntu arte gizartearen militarizazioa indartzera etorri da:

Eragozleak ez dira orain managaitz zibilak bezala kontsideratuak izaten, baizik eta armak eramateko jende batzuk dituzten arazo pertsonalak bezala soilik. Horrek egiten du bere portaerak militarizazioari desafio bat suposatu ez dezala.

Gauz guzti hauek Europa mailan konskripzioaren aurkako kanpaina baten antolaketa kontsideratzera eramaten gaituzte. Kanpaina honekin, herrialde bakoitzaren baldintza desberdinak kontutan hartuz, lan desberdinen koordinazioa - Ordezko zerbitzuaren ukapenetik nazioarteko elkartasun ekintzetara arte - lortu nahi da helburu komunaren lorpenerako: konskripzioaren abolizioa oinarrizko pausoa bezala gizarte desmilitarizatu eta ez biolento bateruntz.

Erreflexio hau, gaurko europear egoera pesimistaren aurrean desobedientzia zibila eta erresistentzi estrategiaren aukeraruntz doa. 1989ko Biltzarraren konklusioek arautegi legala desobeditzearen beharra urratzen dute:

Gurentzat KEarengandik borroka inflexio puntu batera ailegatu da. KEerako baldintzak okertzen daudela ikusten dugu eta KEren edukin politikoaren debaluazio bat ematen ari dela. Ondorioz, KEren muga legalei egindako erresistentzia, konfliktoaren bilakaera inplikatzen du. Ez biolentziagatik dugun konpromesua, konflikto hau (estatu eta KE mugimenduen artean) kaleratzera eramaten gaitu. Jakin behar dugu ea KE erreprimitzen dagoen gobernu baten onespena bilatzen gaude edo ea gizartearen onespena bilatzen dugu.

1990an Estatu Espainarrean intsumisioari eskainitako KEren Nazioarteko Egunak lan bide honetan azpimarratu nahi zuen. 1991ko Biltzarra aurrerakontu hauen errebalidazioa izan da. Holandes, filandes, suediar, austriar eta noruegoak desobedientzi prozesuak hasten daude eta haiekin KEren dimentsio desmilitarizatzailea berrezkuratuz. Intsumiso zenbakia hazten hasi da eta hemen bezalako aurkezpen kolektibo batzuk egiten hasiak dira.

Orain inkognita Ekialdeko herrialdeekin planteatzen da. Han, KE debekatuta egon da beti. Gobernu batzuk beraren regulazio legal azkar baten aldekoak dira, beste herrialdeen legeak kopiatuz. Azkenengo Nazioarteko Eragozleen Biltzarren funtsezko helburu bat Ekialdeko eragozle taldeekin erlazioak indartzea da.

Europan gobernu bakoitzak uzten duen eragozle zenbakia dago eta bakarrik konfliktibitasuna, kontzientzia eta militarismoaren aurka borroka egiteko gogoak dauden tokietan, estatuak KE integratu eta kontrolatzeko zailtasunak ditu eta eragozle zenbakia hazten da gobernuaren aurrikustetik kanpo, konskripziorentzat reto batean bihurtuz eta ejerzitoen izatea kuestionatuz ala, eragozleek planteatzen duten desafioa gobernuaren kontrolpetik ihes egiten duelaren ondorioa da - batez ere intsumisioaren jaiotzetik -. Europear eragozle taldeak urtero biltzen egon dira egoera hau aztertzeko deitutako KEren Nazioarteko Biltzarretan (ICOM) . 1987an, bere azken aldarrikapena hauxe zen:

Europear herrialdeen gaurko egoera KEren kontzepziotaz ikuspuntu antimilitarista batetik erreflexionatzearen beharra.

IPARRA-HEGOA

DESOREKA EGOERA

Datu batzuk adibide bezala:

• Populazioaren 30%ak (herrialde garatuak) lur aberastasunetik 7/8ak kontsumitzen ditu. Ikusten dugu zer geratzen zaien beste bi herenei.

• Urtero gosearen ondorioz 50 milioi pertsona hiltzen dira. Haien artetik, egunero 40000 ume hiltzen dira. Bitartean, denei elikatzeko behar denaren baino 10% bat gehiago egiten da.

• Zehazki, 850 miloi pertsona daude gaur egun bizitzako bere oinarrizko beharrak ase ezin dituztenak, haien artean behartsuenak.

• Esportatze den armen 97%a herrialde garatuetatik etortzen da; inportatzen den armen 70%a Hirugarren Mundura doa.

• Erasotzeko hegazkin baten prezioarekin -ejerzitoen «harrokeria» eta haurrei hainbat «liluratzen diena»- Hirugarren Munduan 25000 anbulategi eraiki litezke.

• Hirugarren Munduko herrialde batzuek esportazioaren 50%a baino gehiago zorrak ordaintzeko erabiltzen dute, garapena ezinezkoa eginez.

• Iparraldean bizitzaren bataz bestekoa 72 urtetik 75 bitartekoa denean, Hegoaldean 60 urtetakoa da.

• Europak zakur eta katuei jateko ematen gastatzen duenarekin, 10 miloi pertsona elikatu daitezke.

Desoreka guzti hauek, pertsonen artean sinestezinak, gizartearen «deshumanizazio» sakonaren ikur ohargarri bat dira. Baina ezin da ahaztu Iparra eta Hegoa arteko desorekak -desoreka hazkor eta azeleratuak- sortaraziak direla. Gure nazioarteko ordenak ezin du banandu Iparraldeko aberastasuna Hegoaldeko txirotasunatik, Iparrak hazten darrai Hirugarren Munduko etengabeko esplotazioari ezker.

Nazioarteko orden hau aldatzea, pakeagatik lan egitea da. Bidezkoa den orden sozial eta ekonomiko batek bakarrik, garapen mundialean herrialde batzuk besteen gainetik duten aitzindaritza morala juztifikatu dezake. Aitzindaritza hau aprobetxamenduan oinarritzen denean, pakearen lorpena galerazten duen bidegabeko orden mundial batera darama.

ZERGATIAK

a) Badaude arrazoi batzu Hirugarren Munduko Herrialdeen barruko dinamikari dagokienak.

• Leherpen demografikoa, benetan itzelgarria; herrialde industrializatuak bere populazioan gelditu diren bitartean, garapen bidean dauden herrialdeak 3000 miloitik (1975) 5000 miloitara (2000) pasatu dira.

• Atzerapen teknologikoa.

• Gestore politiko batzuen gaitasunik eza.

b) Arrazoi horien eragina ukatu gabe, herrialde garatuetan jatorria duten zergatiak kontutan eduki behar ditugu:

• Hirugarren Munduko egoera, neurri erbakior batean, gure zapalketa kolonialaren fruitua da: 1992 urte famatuak, europear hedakuntza hasi eta beste herrietako ondareen galera abiapuntu izan zueneko bostgarren mendeurrena suposatzen du.

• Lehengo kolonialismoa estaliz, oraindik irauten duen nazioarteko erlazio ekonomiko bidegabekoan fruitua da ere. Aipatu litezke:

1. Hirugarren Mundua nekazal monokultibora derrigortu duen esportazio/inportazioak, espero zitekeen baliobideen eskastea ekarrri du lehengai prezioen erorketagatik.

2. Elikagaien menpekotasuna (EEBBek gari eta artoaren 50% hornitzen diete).

3. Transnazionalen aktibitate ekonomikoak Hirugarren Munduko eskualdeak zapaltzen ditu. (Zenbateraino heltzen den jakiteko, adibidez General Motorsen indar ekonomikoa Suedikoa baino haundiagoa da).

4. Prestamen/zorren dinamikak Hirugarren Munduko eskualdeak ia ordaindu ezinezko zorretan sartu ditu, garapen ekonomikoa bertan behera utziaz.

• Guda, Hirugarren Munduan eguneroko ogia (1945tik gaur arte 130 guda ireiki jasan dituzte), gose eta miseriaren eragingarri izan da ere: eragindako hilengandik (80 miloi batzuk diotenez), aberestasunaren suntsimenduagatik, gastu militarreruntz desbideratutako errekurtsoengatik, e.a. Nahiz eta gatazkan sartutako herrialdeek motibazio intrinsekoak izan, herrialde garatuetako bloke militarrek darameten dinamika, eta hauek prezio onean eskainitako armamentua dira, batzutan gudak eragin eta besteetan gudak areagotu dituztenak.

EKINTZAK

Desoreka horren egozpeneruntz jotzeak 3 puntutan aurrerapena dakar:

- Garapen arazoen ezaguera bizkortu.
- Elkartasuna, juztizia eta pakearen aldeko baloreen prestakuntzan hezi.
- Justua ez den mundu bat aldetzeko ekintza eta konpromesurantz bideratu.

Euskal Herrian pakearen alde lan egiteak, Iparra/Hegoa arteko desorekak izan bitartean, pakerik ez dela izango onartzea suposatzen du.

K.Etik militar baliobideak, juztizia eta pakea sortuko duten proiektuetan bilakatzea aldarrikatzen dugu.

Jasan ezina da minutu batean 4 haur gosez hiltzen diren bitartean armamentuan 1,5 miloi dolar gastatzea. Gure armek, gure ejerzitoek ez dute tiro egiten dutenean bakarrik hiltzen, bizi sozialaren koste horri, diru hori desaprobetxatzeagatik giza gastuak batu behar dira. Urte bateko ikerketa eta garapen militarraren presupuestotik 1/8 inbertitzea nahikoa litzake, urte batean 500 miloi pertsonei jaten emateko.

Gure munduko militarismoa Hirugarren Munduko herrialdeen garapen ekonomiko eta soziala galeraztea ari da eta beraien baitan biolentzia saioak sortzen.

«Guda hotza» delakoaren desagerpenaren ostean, Iparralde indartsuak bere botere ekonomiko eta militarra Hegoaldeko herrialdeen kontrol diktatorialaruntz zuzentzen du, bidegabeko orden mundial bat sortuz indarraren nagusitasunan oinarrituta, pake mundial egonkor baten egitura hautsiz.

K.Eren alde lan egiteak desmilitarizazio eta giza nahiz ekonomi ordenu justuago bat eskatzea suposatzen du munduko herrialde guztientzat. Nazio aberatsek behartsuekiko eginten duten kontrol politika, bertako biztanleen behar eta gogoekin zer ikusirik ez duten egituren mantentzera behartzen dute. Baliogabeko, eta eskotan gizagabetzailea den egitura honen sortarazten duen ezinegontasun sozialak, injustizia gehien pairatzen duten herriengan, segurtasun eta itxaropen eza eragiten dute. Horrek, iparraldeko herrialdeen «dei lilutagarriak» hegoaldekoengan etangabeko migraketa bat eragiten du.

Herrialde aberatsek migraketa berri honi ezartzen dizkioten oztopoak alferrikakoak dira eta neurri haundi betean pertsona inmigranteen defentsarik eza eta duentasun galtzea areagotzen dute. Estatu Espainarra «atzerritarrentzako legea litzateke aipagarriena». Oinarrizko eskubideak seguritatea, laguntzak orokorrean, praktikan jarri orduko txirotasun, defentsarik eza, legez kanpoko egoerea, edota abar luza betean bilakatzen dira.

Gure herrialdeko inmigranteen egoera gehiago larriagotzen da, inguruan indarra hartzen ari diren arrazizta kutsuko giza mugimenduak direla eta. Giza honetan pertsona hauek Legearen eskasiak jasateaz gain, azala, itxura eta ohiturak ezberdinak izateagatik gizarte mailako erasoak jasan behar dituzte. Ez ezagunarekiko eta ezberdinarekiko beldurra, inmigrantea ezberdina den norbait bezala onartu beharrean, gure bizimodua erasotu, gure lanpostuak kendu edota drogarekin trafikatzen duen norbait bailitzan hartzen dugu.

Beraz, jatorrizko beren herrialdeetan ukatzen zaizkien aukerak (Hirugarren Munduko herrialdeak), ustez gizarte milan garatuagoak diren herrialdeetan ere ukatzen zaizkie. Pakearen alde apostu egiten dugun herrialde europearrok behin eta berriz pertsonaren duintasuna zapaltzen dugu eta pakea juztiziaren aldeko alkartasun konpromesuaren bitartez lantzen dela ohartzen.

INDUSTRI MILITARRA, GUDAREKIN NEGOZIOA EGITEA

Industri militarraren gakoa, edo, positiboki, pake ekonomikoaren gakoa, zalantzarik gabe borroka pakezalearen «ahizpa behartsua» da. Zihur aski, bere zailtasunarengatik, baina baita ere pake mugimenduaren analisien murrizketa bategatik, ekonomi arloaren eta sistema militarren arteko erlazioa ez da izan sakondua, eta batez ere, gutxi erantzunda. Horrela, pake mugimendutik aztertutako gaien sailkapena egingo bagenu, industri militarraren gakoa azken tokian agertuko litzateke.

INDUSTRI MILITARRA ESTATU ESPAINARREAN

Estatu Espainarrean industri militarraren arloan gutxi gora behera 70 enpresa aritzen dira ejerzitoarentzat lan egiten. Beste 400-500 bat enpresek militar arloan erabili beharreko produktuek hornitzen dituzte, «AsociaciÛn de Fabricantes de Armamento y Material de Defensa (AFARMADE)» esanetan, zeinak arma fabrikanteen 95%a ordezkatzen duen, nahiz publikoak nahiz pribatuak. Ia 30.000 pertsonek indar armatuen hornitzaile zuzenak kontsideratuak diren enpreseetan lan egiten dute, eta kopuru hau 100.000raino heltzen da enpresa hornitzaileen orokortasuna kontutan hartzen baldin badugu.

Espainiar armamentu induztriaz hitz egiterakoan 3 atal nagusi bereiztu behar dira: publikoa, pribatua eta multinazionala. Izaera publikoko militar produkzioaren enpresak INIren (Instituto Nacional de Industria) barruan daude, zeina Industri eta Energiako Ministeritzaren menpean dagoen, eta hiru zati desberdinetan kokaturik daude: defentsa, automozioa eta elektronika. INIren defentsa saila estatuko armen esportadore eta egilerik handiena da, esportazio guztien 85-90% INIk egindakoak direla esan dezakegularik. Gelditzen dena sektore pribatuak egiten du.

Sektore pribatua, arma industri espainarren ezezagunik handiena da, produkzio eta esportazio datu orokorrak ezagutzea oso zaila delarik. Honen zergatiak hiru dira : lehena, produktu militar asko gehienetan izaeran zibileko piezatzat hartzen dira; bigarrena, produktu berezi batzu (elektronikoak batipat) bai militar arloan bai zibilean erabili daitezke; eta hirugarrena eta azkena zera da, enpresa pribatu

batzuek bakarrik noizean behin produktu militarrak ekoizten dituztela. Sektore honetan 20.000 pertsona gutxi gora behera aritzen dira , eta dinamismo esportatzaile nabaria dute.

Sektore Multinazionalari dagokionez Estatu Espainiarra 1983an zenbait elkarlanerako arma produkzioan sartu zenetik, ezagunena, nahiz bakarra ez, European konbate hegazkina da. Espainiar militar industriaren garapenerako bide hau indartsu bultzatzen ari da Industri Ministeritzatik, nazioarteko egoera berrian bere mantenurako alternatiba bakarra uste delarik.

ARMAMENTU INDUSTRIA, MERKATALGO ETA DEFENTSA POLITIKA.

Armamentu industriak, herrialde baten defentsa politika eta bere militar gastuen aurrikustekin harreman zuzena du. Honekin loturik, 1977tik espainiar gastu militarrek gorakada nabarmen bat eman dute, 157.000 miloitik urte hartan , 1991ko 858.000 miloitara pasatuz. Gainera, hemendik 1994ra Estatu Espainiarrak militar ikerketa, guda material erosketarako eta ejerzitoaren mantenurako 7 billoi pezeta jarriko ditu.

Ikerketan inbertsio haundiak behar dituen industri bat da. 1990an, kapitulu hontan defentsa aurrekontuak 55.000 pezeta gainditu zituen, Estatuko aurrekontu orokorrean osasun ikerketarako eskainitakoa baino 5 aldiz gehiago; edo «Consejo Superior de Investigaciones Cientificas» delakoaren, Estatu Espainolean dagoen ikerketarako erakunde garrantzitsuena, aurrekontua bikoizten zuelarik. Azken bost urteetan militar ikerketen gastuaren gehikuntza meteorikoa izan da, 1985ean Defentsa Ministeritzak gai hontarako 5.000 miloi baino gutxiago eskaini zituela kontutan hartzen badugu. Holako gehikuntza OTANeko egitarauan, eta bereziki European Konbate Hegazkinean parte hartzeari zor zaio.

Azkenik, Estatu Espainarrean militar industri egoeraz ari garelarik ezin dezakegu ahaztu hainbat garrantzia duen arazo bat: industri hontako produktuen patua. Logikoa denez, enpresek saltzeko produzitzen dute, herrialdean bertan edo nazioarteko merkatuetan.

Armamentu enpreseen kasuan, Estatu Espainiarrak produkzioaren 50% baino gehiago esportatzen du, munduko lehenego 10 esportatzaileen artean kokatuz. Funtsean, esportazio hauek Hirugarren Munduko herrialdeetara zuzendurik daude.

INDUSTRIA

INDUSTRI MILITARRA EUSKADIN

Euskadik Estatuko armamentuen industri pribatuko heren bat biltzen du bere lurraldean gutxi gora behera, produktu konbentzionaletara zuzendua bereziki : arma luzeak eta laburrak, munizioak, bonbak eta lehergailuak. Urtero 30.000 miloi pezeta baino gehiagoko fakturazio batekin, 12.000 langileei ematen die lana. Euskal Herriko arma industri produkzioaren 80% baino gehiago Hirugarren Mundura zuzenduta dago.

Gainera, GAMESAk Gazteizen du bere egoitza, estatuko enpresa esportatzaile nagusienetako bat delarik, bere produktuak saldu eta, beste enpreseen esportazioei estaldura eskaintzen dielarik. Salaketa asko egon da operazio triangularretan parte hartzeagatik, hau da, hirugarren herrialde batera armak bidaltzeko zubi bezala beste herrialde bat erabiltzea, jasotzailearekin zuzenean, arrazoi ezberdinegatik, harremanik ezin delako euki. 1984an horrelako operazioak egiaztatu ziren Iranekin, nahiz eta espainiar gobernuaren erabakiarengatik enbargo batera kondenatuta egon, Libia eta Siria bidez. Enpresa hau Iranekin bitarteko iraunkor bat izatera ailegatu zen. Hauetako enpresa batzuetan, SENER adibidez, Euskal Komunitate Autonomoan kokaturiko banku eta aurrezki kutxek parte hartzen dute. Beste alde batetik, Euskadi Estatuko beste puntuetatik datorren esportaziorako hasiera puntu bat da, bai itxasoz bai hegaz.

Azken aldian, Explosivos Alaveses S.A. (EXPAL) enpresak, aire erregaizko lehergai bonbaren diseÒu eta garapenaren arduratu dela berri izan dugu, suntsitzaile botere handiko arma hontaz hornitzea nahi du espainiar ejerzitoak.

AKTIBITATE ILUNEKO INDUSTRIA

Zihuraski, sinplezia bat izango da razionalitate kapitalistatik funtzionatzen duen enpresa baten portaeran eritzi etikoak aurkitzea. Dena den horrelako eskakizun bat azaldu behar da, eta are gehiago militarra bezalako industria batean, non jokoan dagoena, era zuzen batean, pertsonen bizia eta herrien askatasuna bait da.

Hasieratik, hain zuzen, heriotzatik bizi den industri bat dela jakinik ere, errealitateari kasu eginik, bere funtzionamenduan irregulartasun asko salatuak izan direla adierazi behar da; batzutan legalitate beraren hauste garbi bat suposatu duten irregulartasunak.

1987ko Maiatzean arma esportaziorako hertsiak aurkitzen ziren Espainiagatik honako herrialdeak: Surafrika (ONUren akordioz), Iran eta Irak (gudan ziren

GERARA GERARA!
GERR GERRA!

orduan, gobernuaren erabakiz), Siria eta Libia (Europear Komunitatearen akordioz), Txile eta Paraguai (gizaldeko arrazoiengatik), Taiwan (aldebietako ordenu arrazoiengatik), eta Varsoviako Paktuko herrialdeak, Ipar-Korea, Mongolia eta Bietnam gainera (blokeen politikagatik). Dena den, horietako kasu askotan betoa ez da errezpetatua izan, eta armen salmenta eman da.

Surafrikako kasuan, adibidez,1985a bitartean 489 miloi pezeta balio zituzten aireuntzi ekipoak esportatu ziren. Eta 1987ko ekainean Surafrikara Esperanza y Cia enpresatik bidalitako arma toneladak Sondikako 32 aeroportuan aurkituak eta bahituak izan ziren; enpresak holako norakorik gezurtatu zuen, baina orduan egiazko norakoa zein zen argitu gabe

Txileren kasuan halako egoera bat gertatu da. Nahiz eta 1978an, Txilerekiko Alkartasunaren Nazioarteko Konferentziaren esparruan, PSOEk Pinocheten diktadurari arma salmentaren gelditzea,eskatu bazuen ere, Estatu Espainiarrak ez zuen 1986ko abuztua arte Txileri inolako enbargorik ezartzea erabaki eta Txile 1984ra arte espainiar arma esportazioaren ia 20%ren norakoa izan zen. Hala eta guztiz, nahiz eta enbargoaren erabakia egon, Estatu Espainiarrak 1986ko iraila eta urrian munizio eta jaurtikigaiak, pistolak eta istilu kontrako tanketak Txilera bidali zituen, eta gainera, Santanderren Txile, Britaniar eta Estatu Espainarreko kapitalarekin sortutako enpresa mixta baten instalazio onartu zuen, lehergailu eta koheteen produkziora destinatua eta zibil helikopteroak militar erabilipenerako artilari helikopterotan bihurtzeko.

Bestalde, gobernu sandinistaren aurka Hondurasetik borrokatzen zuen «kontra»ri espainiar arma salmenta salatu da. Gainera, Estatu Espainarraren inplikazioa»Irangate» eskandalua ere salatu da, Teheranera armak bidaltzeko espainiar aeroportuak zubi bezala erabiliak izan bait zitezkeen. Horrela, 1986ko urrian Barajaseko aeroportuan Zuritzera (Suiza) zihoazen 2 estatubatuar 5 miloi dolarrekin atxilotuak izan ziren; 28 ordu pasa ondoren detenituak «espainiar erakunde konpetenteetatik babestuak» izan ziren eta aske gelditu. Batzuen arabera, diru hori EEBB eta Iranen arteko akordioen formalizaziorako erabilia izan zitekeen, bahitutak ziren estatubatuarren askatasuna lortzeko edota «kontra»ri luzatua izan zitekeela.

Baina agian, espainiar armen esportazioaren mundutik eratorritako eskandalu handiena Iran eta Iraken arteko gudarekin zer ikusirik duena izan da. Nahiz eta bi herrialderuntz ezarritako bahitura tartean izan, 1980 eta 1987 artean 100.000 miloi pezetako balorez bi herrialdeekin eginiko arma salmenten operazioak salatu dira: guda baten bi aldeei arma saltzea negozio hoberik bururatzea zaila da. Lehengo atalean aipatu dugun bezala, Operazio hontan euskal enpresa batzuk, GAMESA eta EXPAL bezala, parte hartu zuen eta operazio triangularrerako, Libia eta Jordania erabili.

Gatazka honekin erlazionaturik, gainera, GAMESAk fosforo txuriaren zama batzuk Irakera bidali zituen, arma kimikoaren fabrikaziorako ezin bestekoa den osagai, INIren enpresek egina; eta denok dakigu, nazioarteko komisio batzuk azaldu zuten bezala,Irakek gudan arma hauek erabili zituela. Gainera, erabilitako proiektil batzuen karkasa edo ontziak espainiar fabrikaziokoak ziren, konkretuki EXPAL enpresakoak.

Beste aldetik, urte honen hasieran Instituto de Credito Oficialaren agiri baten edukia argitaratu zen Garapenerako Laguntza Fondoren krediituekin Hirugarren Munduko herrialde batzuei arma salmenta operazioak finanziatu zaizkiela,onartuz. Nahiz eta operazio hauek ezin diren ezlegaltzat jo, gure gizarteko arduradunen artea « garapenerako laguntzaren» kriterioa zein den jakiteko asmoa azaltzen du.

Azkenik, 1990ko abuztuaren 7an azpimarratu behar da, Irakek Kuwait hartu eta bost egunera, eta ONU ren segurtasun kontseiluak bahitura dekretatu eta egun bat beranduago, Gobernuak Irakera zuzendutako espainiar arma partida batzu gerarazi zituen. Partida hauen artean 2 euskal enpresek, EXPAL eta TREBELANek, eginiko espoletak eta kalibre handiko munizioak agertzen ziren.

INDUSTRIA ALTERNATIBO BATEN ALDE

Militar industri indartsu baten mantenua funtsesko 3 argudioetatik juztifikatzen ohi da: herrialde defentsaren eskakizun bat, kanpoko menpetasuna ekiditeko era bat eta lan postuen sortzaile bat bezala.

Lehenengo 2 argudioek herrialde batek bere buruari eman nahi diren defentsa politika ereduarekin zer ikusi zuzena dute. Defentsarako soilik ulertzen den defentsa politika batetik, beharrezkoak ez diren armak fabrikatzen direla argi eta garbi esan behar da. Industri militarraren erizpidea ez da hainbeste defentsarako armak egitea, negozio ekonomikorako armak fabrikatzea baizik; ondorioz, erasotzeko armen ekoizpenean oinarritzen da, defentsiboak baino 10 aldiz garestiagoak, eta merkatuan irteera dutenak gainera. Beraz, askoz merkeagoa den defentsa politika bat eratzea posible da eta bertan industriaren partaidetasun txikiago bat dakarrena. Kanpoko menpekotasunari buruz, Estatu Espainiarrak aukeratutako defentsa politika, sistema armamentistak asko inportatzera behartzen duena da. Ikusi dugunaren arabera, militar ikerketara bidalitako fondoen izandako gehikuntza, OTAN eta UEOn espainiar partaidetzarekin zuzen erlazionaturik dago.

INDUSTRIA

Enplegu eta armamentu industriaren arteko erlazioaren arazoak interes gehiago du. Industri militarrak herrialde baten enplegu mailean ondorio txarrak dituela argi eta garbi esna behar da, eta hori 2 zentzutan: Lehena bere inbertsio, salmenta eta esportazioen hazkunde bati, langileen kopuruaren jaitsiera nabarmen bat dagokien industria bat delako. Konkretuki, nahiz eta armamentu industria estatuaren urteroko egiazko inbertsioen 47% armentzat izan, estatuko langileen 1.6% bati ematen dio enplegua. Bigarrena, industri militarrak sektore zibila baino lanpostu gutxiago sortzen bait ditu, inbertitutako diru berdinagatik.

Estatu Batuetako Lan Estadistika Bulegoak emandako datuen arabera, 1000 miloi dolarrek lanpostu hauek sortuko lituzke honako arlotan:

Defentsa	75.710
Garraioa	92.701
Eraikintza	100.072
Osasuna	138.939
Heziketa	187.299

Horregatik, industri militarraren errekonbertsio beharra planteatzeko nahiko arrazoi badaude: arrazoi etikoak, arrazoi politikoak, arrazoi defentsiboak eta baita arrazoi ekonomikoak ere.

Gainera errekonbertsio posible bat da. Nahiz ugariak ez izan, badira esperientzia praktiko ezaugarri zenbait. Ezagunena, 1975ekoa, Lucas Aerospace britaniar enpresan egina. Bertako langileek Plan Alternatibo bat eratu zuten bere produkzio militarra gizarteari baliogarri zitzaizkion beste sailetara bultzatuz.

Erakunde sindikalak arazo hontaz gero eta gehiago kezkatzen ari dira. Estatu Espainiarrean, CCOO eta UGTek armamentu industri espainiarraren errekobertsioaz agiri bat landu dute. Ingurune honetan, pake mugimenduak ezin du bere salaketa eta mobilizazio ahalmena batu gabe utzi, pixkanaka eratzen ari den industri militarren aurkako korronte kritikoari.

EMAKUMEA ETA ANTIMILITARISMOA

Zer esan nahi du izenburu honek? Emakumeok militarren aurka hasi behar dugula? Ez ahal dugu guk ere soldaduzkara joateko eskubiderik? Antimilitarismoaz hitzegiterakoan zer esan nahi dugu? Zer ikusi daukagu guk emakumeok gai honekin?

Galdera hauek eta beste batzuk, denonak diren interes batzuk defendatzeko garaian, antimilitarismoak duen emakumearen partaidetzaren beharra besterik ez dute adierazten.

Azken urte hauetan gai honi buruz gure inguruaz mugimendu eta iritzi asko ugaritu dira, gero eta gehiago dira arazo honen aurrean postura bat hartu dutenak eta posizionatu direnak.

Gizarte kezka ikusi ondoren, alderdi desberdinek ere bereganatzen joan dira soldaduska eta militarismoaren arazoa.

Hala ere, garbi dago ororki, kezka, soldaduskara joateko garaian mutil gazteek duten joan behar horretatik sortzen dela eta beraiek direla gehienbat arduratzen direnak gai honetan.

Uste dut ordea, soldaduska eta antimilitarismoaren arazoaz, gazte hauetatik aparte, eta alderdietatik aparte, gizarte osoak arduratu behar duela, emakumea barne delarik. Emakume bakoitzak gizarteko edozeinek bezala bizitzeko egokien iruditzen zaion gizarte baten aukera egin behar du.

Honela batzuk giza eskubideen alde lan egingo dute, adierazpen askatasunaren alde, emakumeen eskubideen berdintasunaren alde etab... hari honetan antimilitarismoak ere beste gai hoiek bezala bizitzeko ikuspegi bat defenditzen du, gizarte mota bat.

Antimilitarismoa: pertsonen arteko arreman mota berri bat

Honelaxe definituko genuke hitz honen esanahia, Indarkerieza; ikuspegi honetatik ulertezina egiten zaigu, gaur egun oraindik pertsonen eta nazioen arteko elkarrizketak gerren bidez egiten direla ikustea, milaka miloi pezeta armatan gastatzen ditugula jakitea eta soldaduzkan gizakie bata bestea hiltzen erakusten zaiela ikustea.

Hori dena ulertezina eta alperrikakoa iruditzen zaigunez soldaduzkaren aurka gaude , objezio fiskal bultzatzen dugu eta pakearen aldeko heziketa bat aldarrizkatzen dugu. Giza emakumeen arteko harremanak beste mota batekoak izatea nahi dugunez indarkeriarik gabeko gizarte baten alde borrokatzen dugu.

Baina guzti hau denon arazoa da eta ideia hauekin ados dagoen edozeinek, bai gizon bai emakumek, hoien alde lan egin behar du. Beraz eta lehen adierazi dugun bezala antimiltarismoa ez da bakarrik soldaduzka, askoz zabalagoa baizik eta inola ere gizonen arazoa bakarrik.

Emakumearen eskubideen berdintasuna

Antimilitarismoan bezalaxe eta garrantzi berdinarekin, puntu honetan ere justiziaren aldeko ideiak labur blitzen dira: emakumeak gaur egungo gizartean majina bata ariotan jasaten duen egoera injustoa eta salagarria, itxu ez dagoen edozeinek ikus dezake. Baina lan munduan eta politikan emakumearen partaidetza gizonekin parekatuz eskaxa izan bada, militarizaioaren arioan diskriminazioa oraindik askoz ere handiagoa izan da eta jarraitzen du izaten.

Arlo honetan beste inun baino gehiago «idea matxistak» zabaldu eta produzitu izan dira: emakumea ekintza hauetatik erabat baztertuz, mutilei soldaduzkan erakusten zaizkien balore matxistak goraipatuz, gazte hauek gizarteratzean heziketa horren eragina ingurukoek jasanez etab...

Honela injustizia guzti honen sustraia bizi garen gizarte eta kultura honek emakumea gutxi etsita edukitzean datza, gizon eta emkume askoren buruetan, emakumea behar bezala ez baloratzeak injustiziazko ideia, jarrera eta legek sortzen dituelarik.

Beraz honen aurkako borrokak, gai eta alo guztietan (militarismoa barne), emakumearen berdintasunezko balorazio bat eskatu beharko luke. Gerrak ez bait dira irabazten gizontazun ezaugarriak garatuagoak izateagatik burua erabiltzeagatik baizik.

Honek ez du esan nahi arlo guztietan bai gizon eta emakumeen presentzia kopuru berdinetan egotea eskatzen denik, gizon eta emakumea gaitasun eta ezaugarri ezberdinekoak ezan arren pertsona bezala balore berdinekoak direla errekonozitzea baizik, ondorio bezala ideia, jarrera eta legeetan kontsekuenteki jokatuz emakumearekiko.

Baina ez dugu uste hau, emakumearen borroka bakarrik izan behar denok, denona baizik (gizon eta emakume). Gizarte justu baten alde lan egin behar luke.

Antimilitarismoa eta berdintasuna

Bi ikuspegi hauek lotuaz ordea ez luke inongo lojikarik izango denontzat txarra den arlo batetan (militarizazioan) emakumearen partaidetzaren alde borroka egiteak. Militarizazioa gizarte osoaren kalterako ikusten dugunez, edozein gizon eta gizarte emakumeren haiekiko partaidetza gaitzesten dugu: soldaduzkara joanez, zergetan armetarako dirua emanez, etab...

Azkenik eta ondorio bezala, emakumearen eskubideen berdintasunaren aldeko borrokan denen partaidetza eskatzen badugu antimilitarismoaren aldeko borrokan ere eman dezagu emakumeok gure bultzadatxoa.

FISKAL ERAGOZPENA

Militarismoari hainbat baliobide ekonomiko eta gizatiar eskaintzea suposatzen duen zentzugabekeriaren aurrean, gastu militarrei Kontzientzi Eragozpen Fiskala egitearen asmoa sortu zuen. Fiskal Eragozpena ez da bakarrik Estatuari diru bat ukatzea; injustiziei aurre egiteko berarekin kolaboratzea norberaren ezezkoagatik hastearen sinismen pertsonala soposatzen du, gure jokaera da azken finean, Estatuaren helburuak betetzen utzi ala uztiko ez diona. Horregatik Fiskal Eragozpena egiten denean, dirua desbideraketa baino zerbait gehiago egiten ari da, Estatuari desobeditzen ari zaio publikoki.

Planetaren ia estatu guztien gobernuek praktikatzen duten politika militaristak, ondorio zuzen eta nabari bat du: Mundu garatua delakoaren ehundaka hauzo eta herrietan eta Hirugarren mundua ,delakoan miloika lagun behartuak izaten dira azpiaurrerabide batean bizitzera. Ejerzitoen mantenurako eta armamentu fabrikazio eta salmentarako eskaintzen diren dirutza mordoak, ez dira erabiltzen edota gutxi erabiliak dira beste arlo batzuetan: nekazaritza, ikaskuntza, etxebizitza, osasuna, hirugarren adina, kultura, e.a.

Zurrunbilo militarista honek, urte hauetan EEBB eta SEBS arteko erlazioen hobekuntzarekin teorikoki balaztatua, honako erokeri hau darama berarekin: Latinoamerika, Asia eta Afrikaren herrialde batzuetan iragan hamarkadan gastu militarrak 3% baino gehiagoko gehikuntza bat jasan du, herrialde hoietan (PIB) BPGa 2%ren azpitik gehitzen zen bitartean.

Eta Estatu Espainarra, gure zergak jasotzen dituena, ez dago egoera hontatik salbu. Estatu Espainarrean ondoren beste herrialde batzuei saltzen den armamentua fabrikatzen da, nahiz eta hoietako batzuek azpiaurreratuak egon. Estatu Espainarrean Estatuko Aurrerakontu Orokorratik 8% ren bat eskuratzen da ejerzitoa mantentzeko, zerbitzu militarrak, erresebistei ordaintzeko, NATOren errepresentazio gastutako, e.a.

FISKAL ERAGOZPENA: GASTUAREN REORIENTAZIOA

Alferrikako diru-isurtze honen aurrean, Fiskal Kontzientzi Eragozpenak gastuaren reorientazio bat eskatzen du. Eta Fiskal Eragozpenaren praktikarekin eskatuz gainera, gure eskaria funtzionamenduan jartzen dugu: Foralak edo ez ,diren ondasunei, ordaintzen ez diegun dirua, garapen proiektoetarako eskaintzen dugu.

BJEZIO
KALA
GASTU
MILI
TARREI

Diru hori ailegatu den lekuen zerrenda nahiko argitsua da: Managuan eskola bat eraiki zen; Eritrean zona baten nekazaritza laguntzeko ur putzuak eraiki dira; Leshoton (Hegoafrika) osasun zentro bat egin da; Mendebaldeko Saharara laguntza eskolarra ailegatu zen; Filipinasen Gabriela taldeari inguruan bildutako emakumeek, emakumearen enplegu eta bultzapena laguntzeko, kooperatiben eraikuntzarako dirua jaso dute; Guatemalan ezarkuntza kanpaina bat eratzera doa, guda zibilaren erruz bere herritik kanpo bizi diren guatemaltekoentzat; e.a.

Penintsulan ere dirua eskaini da, bi urte desberdinetan, SOCengatik koordinatutako nekazal kooperatibentzat, Anchuras eta bere eskualde defentsarako, El Telenon (Leon) pakearen etxe baten eraikuntzarentzat, e.a...

Euskal Herrian ere,dirua eskaini da Nafarroako irrati euskaldunei laguntzeko (Xoxorrin Irratia eta Euskalerria Irratia),Salhaketarentzat (preso sozialei laguntzeko erakundea),e.a.

NORTZUK GARA ETA ZER EGITEN DUGU

«Euskal Herriko Objezio Fiskalaren Batzarra» Fiskal Eragozpenaren kanpaina koordinatzen duen pertsonen batzarra da. Funtzionamenduan daramagun 4 edo 5 urteetan, pixkanaka haziz joan gara, pertsonen kopuruan eta proposatutako helburuetan. Borroka antimilitaristaren era hau zabaltzeko ez gara bakarrik arduratzen, baita ere armamentu lantegien aurka martxak antolatzen hasi gara. (Markina, Eibar, Nanclares, Gazteiz, e.a...). Lehenengo martxa 1991ko udaberrian egin zen eta arrakastatsua izan zen bai deialdian, komunikabideen ohiartzunean eta baita dibertsioan ere.

Martxa hauekin idei hau zabaldu nahi dugu: ezin dugula aberastasunik sortu, beste herrialde batzuetan heriotza sortuz. Honekin debate bat eratu nahi dugu langileen artean, enpresarien, gobernua eta kaleko jendearen artean enpresa horien errekonbertsioa lortzeko.

NOLA EGITEN DA FISKAL ERAGOZPENA

Eskematikoki honako pausoak eman behar dira:

- Errenta aitorpenaren inprimakiak bete «kuota likidoa» ataleraino.
- Dedukzio atalean idatzi zure Fiskal Eragozpena.

(Nola egin behar duzu eta zenbatekoa, 4 herrialdeetako Gazte Kontseiluetan azalduko zaizu).

ERAGOZLE FISKALEN ZENTSUARI BURUZKO DATUAK

	Eragozle kopurua 1986an zentsatuak	Eragozle kopurua 1991ean zentsatuak
Araba	16	138
Gipuzkoa	15	68
Nafarroa	41	337
Bizkaia	72	296
TOTALA	144	839

PAKEARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA

- FRAGA, Ana, El pensamiento político de Gandhi. Edit. ZYX.
- GANDHI, M.,Todos los hombres somos hermanos. Edit. Sígueme.
- GANDHI, M., Mis experiencias con la verdad. (Autobiografía). Edit. Eyras.
- ARIAS, Gonzalo, ¿Qué es la no-violencia? Edit. Pax cristi. Barcelona, 1974.
- MULLER, J. M., Estrategia de la acción no-violenta. Edit. Hogar del Libro. 1983.
- BENSON, B., El libro de la Paz. Edit. Integral. 1982.
- BENSON, B. Educar por la Paz, Edit. Fontamara. 1984
-LUHAN, R.,La cultura de las armas. Mitologia belicista y fetichismo del armamento en la cultura de masas. Barcelona, 1986
- SMITH, D., - SMITH, R., Economía del militarismo. Madrid, 1986
- DIAZ, E. Historia del pensamiento pacifista y noviolento contemporáneo. Barcelona, 1987.
- AA.VV.,Cultura de la paz y los conflictos. Zaragoza, 1988.
- FISAS, V.,Guerra sin armas. La noviolencia en la defensa nacional. Barcelona, 1987
- FISAS, V., Paz, Guerra y Defensa (Guía bibliográfica). Barcelona, 1985.
- GALTUNG, J., Sobre la Paz. Barcelona, 1985
- WILSON, A., Manual del pacifista. Madird, 1983
- AGUIRRE, Mariano - TAIBO, Carlos, Paz, militarización y conflictos Anuario del CIP. 1988-89.
- UNESCO, Repertorio mundial de instituciones de investigación y formación sobre la Paz. Londres, 1988.
- AA.VV. ¿Armamentos o desarme?. Compendio 1984, SIPRI. 1985
- VIDAL, L., Fundamentos de una pedagogía de la noviolencia y la Paz» L. Vidal. Valencia, 1971

BIBLIOGRAFIA

- VIDAL, L., Noviolencia y escuelal. Madrid, 1985

- JUDSON, S., Aprendiendo a resolver conflictos. Manual de Educación para la Paz y la noviolencia. Barcelona, 1986

- EBERT, T., Elementos de una estrategia de defensa civil. Strat. Civ Def. 1987

- UNESCO, Anuario estudio paz y conflictos. Edit. Fontamar, 1986

- NICHOLSON, Michel, Análisis del conflicto Michel Nicholson. Edit. Inst, Est. Políticos, 1974

- AA.VV.,Con razón, insumisión. Edit Revolución. Madrid, 1990

- GARRIDO MILLAN, A.,La objeción de conciencia. Edit. Tecnos.

- CIP, El debate de la Objeción de Conciencia. CIP, Consejos de la Juventud de Euskal Herria. Madrid, 1990.

- GASCON, Marina, Obediencia al derecho y Objeción de Conciencia. Edit Centro de Estudios Constitucionales. Madrid.

- BERRIGAN, D., Conciencia, ley y desobediencia civil. Madrid, 1974.

- ZULAIKA, J.,Chivos y soldados, la mili como ritual de iniciación. Donostia 1989.

- GARCIA CORATELO, R., Resistencia y desobediencia civil. Madrid, 1987.

- PEREDA, A.,La tropa atropellada. El Servicio Militar. Madrid, 1984

- AA.VV.,Cristianos y la Objeción de Conciencia. Madrid, 1990

- HERRERO, J., Informe crítico del Servicio Militar. Barcelona, 1986

- MILLAN, A.,Objeción de Conciencia al Servicio Miitar y a la Prestación Social Sustitutoria. Madrid, 1990

- AA.VV.,Ordenamiento jurídico de la Objeción de Conciencia. Madrid, 1988

- COSIDO, Ignacio, El servicio Militar en los 90: perspectivas de cambi. Fundación José Canalejas, Madrid, 1990

- AJANGIZ, R.-MANZANOS, C.- PASCUAL, J., Objetores, insumisos. La juventud vasca ante la mili y el ejército.Edit. Gobierno Vasco,1991.

ZERBITZU MILITARRAREN LEGE BERRIARI BURUZ

1991.ko Abenduaren 20an Z.M.ren lege berria onartua izan zen aldaketa batzuk jaso ondoren nahiz eta aldaketa hauek legearen izpiritua ikutu gabe utzi.

Aspektu batzuk nabarmendu behar dugu duten eraginagatik, alde batetik, Kontzientzi Eragozpenaren Legearen aplikazio eta garapenean, hau da O.Z.Z.ren betetzearen egitean, eta beste alde batetik, Z.M. egitera desobedezitzen dutenei errepresioan.

O.Z.Z.ren garapenari buruz lege berriak 13 hilabete baino gutxiago eta 18 baino haundiagoko epea betetzeko ezartzen du. Jaikidurako adin altuena jeitsiko da ere 34 urtetik 30 urtera.

Z.M. betetzera ukatzen diren objetoreei buruz, aldaketa garrantzitsu bat izango da: ez dira prozedura militar gehiagorik egingo, objetore hauen kasuak legeindar zibilaren menpe geldituaz, honela O.Z.Z. egitera ukatzen diren zigorrekin berdinduz.

Lege hau desbaliotuta jaiotzen den bat da, etorkizunerako ikuspegi gutxirekin eta Z.M.ren makilaiaren zentzu bakarrarekin, bere betetzeren ezmenpekotasuna asmoz kontrolatzea eta ejerzitoaren irudia hobetzea, Z.M.ren legekenketa eta gizarte desmilitarizazio progresiba eskatzen duen gehiengoen iritziak saihesten.

Euskal Herriko Gazteriaren Kontseiluak

Bilbo
Autonomía 44. 48010 Bilbo
tl. 94-4 43 61 43
FAX: 4 44 71 81
Donostia
Sanchez Toca 1, 4. B. 20006 Donostia
tl. 943-47 21 11
FAX: 943-47 21 11
Irunea
Zangotza 30. 31003 Irunea
tl. 948-23 48 19

Gazteentzako Argibide Lurralde-gunea
Gazteria: Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación 7. 48008
tl. 94-4 16 47 99 4 16 41 17

ARABA

• Gasteizko Talde Antimilitarista (M.O.C.)
Florida 37, 2.A. 01005 Gasteiz
tl. 945-28 07 92
Posta kutxa 2188. 01080 Gastiez
• Laudioko Antimilitarista Taldea (M.O.C.)
Posta Kutxa: 128 Laudio

BIZKAIA

• Asociación de Objetores de Conciencia (A.O.C.-E.K.E.A.)
Prim 27, 3. esk. A. 48006 Bilbo
tl. 94-4 15 49 04 FAX: 4 15 08 26
• Basauriko M.O.C.
Posta Kutxa 132 Basauri
• Bilboko Talde Antimilitarista (M.O.C.)
Carnicería Vieja 9, 4. 48005 Bilbo
Maiatzaren 15.ren aurretik: Iturribide 12 1. esk.
tl. 94-4 15 37 72 FAX: 94-4 15 37 72
• Durangoaldeko Objetore Taldea M.O.C.)
Pinondo Etxea. Pinondo Plaza. 48200 Durango
• Erandioko Peña Antimilitarista (M.O.C.)
Posta Kutxa 57 Erandio
• Gernikako A.O.C.-E.K.E.A.
Kultur Etxea (Astelehena: 19'00-21'00)
tl. 94-6 25 05 50
• Ondarruko Talde Antimilitarista (M.O.C.)
OTAM Posta Kutxa 10101 Ondarroa
• Zornotzako Antimilitarista Taldea (M.O.C.) Posta Kutxa 169 48340 Zornotza

GIPUZKOA

• Andoaingo Talde Antimilitarista (M.O.C.) Kultur Etxea. Posta Kutxa 124 20140 Andoain
• Beasaingo K.E.M. (M.O.C.)
Posta Kutxa 50 Beasain
• Donostiako K.E.M. (M.O.C.)
Duque de Mandas 40. Atotxa.
20012 Donostia tl. 943-32 09 92
Posta Kutxa 1330 20080 Donostia
• Hernaniko Mugimendu Antimilitarista (M.O.C.) Kultur Etxea. Posta Kutxa 149 Hernani
• Hondarribiako Talde Antimilitarista M.O.C.) Informazioa gaztetxean
• Irungo Talde Antimilitarista (M.O.C.)
Fueros 2 20300 Irún
Asteazkena: goizetan
• Legazpiko Talde Antimilitarista (L.E.J.I.A.) Informazioa gaztetxean
• Soraluzeko Talde Antimillitarista (M.O.C.) Posta Kutxa 64 Soraluze
• Zarauzko Talde Antimilitarista (M.O.C.)
Posta Kutxa 167 Zarautz

NAFARROA

• Iruneako Talde Antimilitarista (M.O.C.) Navarrerías 6, 1. Irunea
Posta Kutxa 1126 31080 Irunea
tl. 948-21 05 30
Maiatzaren 15.ren aurretik:
De la Merced s/n kalea 31001 Irunea
• Berriozarko KEM (M.O.C.)
Kultur Etxea. Berriozar
• Sakanako Antimilitarista Taldea
Navas de Tolosa 4, 1.esk.
•Olazti

BIZKAIKO FORU
ALDUNDIA
KULTURA